

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2022-11-18 OSTIRALA / 840. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM

"Igandeko finala iristeko gogotsu nago. Ongi entrenatu dut eta sentazio onak ditut"


Ezkurdiak Lau eta Erdiko bere hirugarren finala jokatu du Altunaren kontra / 16-17



EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra



Bizirik, kontatzeko

Emma Larretak erailketa saiakera bat izan zuen. Pasatutakoa ez zitzaiola "edozerrengatik" gertatu pentsatu eta genero indarkeriaren inguruan hausnartzeko 'InVISIBLES' ikuskizuna eta dokumentala sortu zuen. Bihar Lakuntzan egonen da

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

2007. urtean Emma Larretaren bizitza hamar minututan aldatu zen. Emakume abenturazalea eta ekintzailea dela esan du; Donostiatik oso gazte joan zen hiria "txiki gelditzen" zitzaiolako, leku askotan bizi izan da eta urte luzez kanpoan lan egin du. "Ama izatea eta sustraietara itzultzea erabaki nuen, nire semea familiarik gertu egoteko". Momentu hartan bizitza eten zitzaion, "errurik izan gabe". Bizitzan "hainbeste gauza egin ondoren eta hainbeste buelta" eman ondoren, bera hiltzen saiatu zen bere bikote ohia, Donostiako zentroan, San Martin kalean.

Gertatutako guztiaz "primeran" gogoratzen da Larreta. Sei hilabetez gizon batekin ateratzen egon zen eta "nire pentsamenduekin bat egiten ez duten ohi-turak zituelako utzi nuen. Oso gaizki hartu zuen eta ez zuen onartu uztea". Garai hartan Larreta Donostiako zentroko denda bateko arduraduna zen "eta bazekien non egongo nintzen". Gizonak laban bat erosi eta "ni akabatzen etorri zen. Horrela izan zen. Aurreko egunean salatu nuelako". Larreta lagun batzuekin zegoela gizonak beso batetik hartu eta astindu egin zuen. "Nik oso argi izan nuen nire eremua inbaditu zuela, ez zituela nire erabakiak errespetatu eta salatu nuen". Hurrengo egunean "nire bila" joan zen. "Oso egoera desatsegina izan



Emma Larreta 'InVISIBLES' proiektuaren sortzailea. UTZITAKOIA

**GERTATUTAKO
GUZTIAZ "PRIMERAN"
GOGORATZEN DA
LARRETA; EZ ZUEN
KONORTERIK GALDU**

**"NI DEFENDATU
NINTZEN, ETA
ORDAINA BESOAK
LEHERTUTA
DITUDALA DA"**

zen, egitan. Azalpenak eskatzera etorri zen, ea zergatik salatu nuen, eta esan nion iruditzen zitzaidala merezi zuela eta azalpenak eman behar zituen tokian emango zituela. Bere bizitza berregiteko, bakoitza bere bidetik". Gizonak gerritik labana ateratu zuen eta labankadak ematen hasi zen. 27 labankada.

"Nik egin nuena neure burua defendatzea izan zen. Segunduko dezimetan kalera ateratu behar nintzela pentsatu nuen, bestela hor barruan ezinezkoa izango zela. Gizon handia zen eta ezingo nuen berarekin". Pixkanaka-pixkanaka aurrera egin zuen eta kalera ateratzea lortu zuela kontatu du Larretak: "Baina ordaindutako prezioa da besoak lehertuta ditudala. Besoekin egin nion aurre". Gizonaren gorpuzkerari bere inteligentziarekin erantzun zion Larretak. "Oso argi dut, eta uste dut eskubide osoa dudala hori esateko eta defendatzeko, norbait mugako egoera batean dagoenean bere benetako izaera ateratzen duela". Tratatu duten psikologoen esan diote horrelako egoera batean jende asko "makurtuta iskin batean bola bat eginda" geratuko zela, "baina ni ez. Nik banekien lokaletik ateratu behar nintzela azkar".

Aingeru zaintzailea

Kalera ateratzea lortu zuen baina ateratu zenerako "ez neukan ia odolirik eta oso nekatuta nengoen". Gerora jakin du oso nekatuta zegoela eta itotzen ari zela odolirik ez zuelako, "baina egia da momentuko adrenalina izugarrikoa dela eta ez duzula ezer sentitzen. Salbatzeko bizi sena ateratzen zaizu". Ez zuen konortetik galdu, baina erori zen. Oso "desatsegina" izan zela esan du. "Momentu horretan zinegotzi bat pasatu zen handik eta garai hartan bizkartzainak zeramatzen. Kotxez pasatzen ari ziren eta kotxea gelditu, bizkartzaina jaitsi zen eta pistola gizonarengana bideratu zuen". Gelditzen ez zelako. "Oso gorea izan zen".

Larretak une horretatik argi dauka ez zela bere unea. "Nik

beti esaten dut aingeru zaintzaile bat dudala, nire aitona, eta egun horretan... zenbat lan ematen didazun pentsatuko zuen!". Eskuineko besoako arteria zulatu zion eta odola etengabe ateratzen ari zen, "eta ni odol putzuaren erdian nengoen". "Kasualitatez ere" ZIU anbulantzia bat joan zen, ohiko anbulantziak baino prestatuago daude. "Ospitalera eramanez ninduten eta bederatzik odol poltsa jarri zizkidaten". Familiari hiltzen ari zela esan zioten, "psikologoak joan ziren familiarekin hitz egiteko. Baina *la rubia* esnatu zen". Esnatu zen momentua oso "gogorra" izan zela esan du Larretak, "barrez" esnatu zelako. "Medikuak negarrez zeuden; oso hunkigarria izan zen. Oso momentu *heavy* izan zen, baina nik jakin nuen nire bizitzako lorpen handiena izan nuela".

Ikusgai

Ospitaleko ohean zegoela Larretak pentsatu zuen pasatutako guztia zerbaitengatik gertatu zitzaiola: "Neure burua ikusten nuen, ezin nintzen mugitu, morfina bonbona batekin ia hilabete bat... Eta pentsatu nuen, baina zer da hau!?". Arte eszenikoak "betidanik" gustatu izan zaizkio eta antzerkiaren eta dantzaren munduari lotuta egon da beti eta "zerbait oso polita baina barruraino iristen dena" egin behar zuela bururatu zitzaion: "Jendeak gaiari buruz hausnartzea eta pentsatzea nahi nuen, gaiari behar duen garrantzia emateko". Oraindik ospitalean zegoela antzerkiaren munduko lagunekin hitz egin zuen, esaterako, Aizpea Goenagarekin eta Iñaki Salvadorrekin, "eta nirekin aurrera egingo zutela esan zidaten". Horrela sortu zuten *InVISIBLES* ikuskizuna, Goenagak zuzendu zuen eta Salvadorren musika originala erabili zuten. "Entseguak besoak eskaiolatu nituela hasi genituen". Ospitaletik ateratu eta urtebetera ikuskizuna mustu zuten. "Gozamena izan zen".

InVISIBLES 2008. urtean mustu zuten eta Euskal Herriko toki



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiak berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea





'InVISIBLES' performance eta dokumentalaren une bat. UTZITAKOIA

askotan eman zuten performance bat da. Larreta pertsona baten egoera emozionala guztietatik pasatzen da dantzaren eta interpretazioaren bidez, maitemintzen denetik harremana zapuzten den arte. Gerora, ikuskizuna dokumentala bihurtu zuten, eta performancearen irudiak indarkeria jasan duten emakumeen testigantzekin uztartzen dira. "Teknikoki oso zaila eta garestia zen. Nik ahalik eta publiko gehienara iristea nahi nuen. Herri txiki batera joan ahal izatea eta gela txiki batean izan arren gure lana erakutsi nahi nien. Proiektore bat eta pantaila bat behar ditut". Esentzia eta mezua berdina dira. "Lanak 30 bat minutu irauten du, eta gero nire testigantza ematen dut eta jendearekin solasaldia egiten dut". Bertan jasotzen diren egoerak "oso potenteak eta positiboak" direla esan du Larretak. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak azaroaren 25aren harira antolatu duen egitarauaren barruan atzo Olaztikiko kultur etxean egon zen eta bihar, azaroak 19, larunbata, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean izanen da.

Dokumentalak "oso modu polit batean" azaltzen ditu emakumeen testigantzak eta proiektzioa "oso praktikoa eta efektu handikoa" dela azaldu du Larretak. "Badakit pertsonak, izen abizenekin, bere egoerari buelta eman diotela honi

esker. Hori lortzen du *InVISIBLEk*. Atmosfera oso egokia sortzen du, egiaz beteta. Gero ni ateratzen naizenean eta testigantza kontatzen dudanean, jendeari iristen zaio". Hori da sekretua, "egi handia dagoela". Adin guztietarako pentsatuta dago, "genero indarkeria edozein adinetan eman daitekeenez, nahi genuen edozein pertsonak ikustean ulertzea". Dantzak emozioetatik aurrera egiten duen bitartean, testigantzek ere istorioa aurrera eramaten dute. Bukaeran Ane Gabarainen bakarrikzeta bat dago. "Performanceak hausnarke eta itxaropena uztartzen ditu. Egiten dudana guztiak ukitu hori ere badu".

Helburua

Jendea "nahasirik" gelditzen dela esan du Larretak, "eta hori da justu nik nahi nuena. Proiektzioak lantzen duen gaia oso gogorra eta problematikoa da, eta orduan ezin zara axolagabe gelditu. Erreakzioak gaiarekin bat egin behar du, eta nik uste lortu dudala". Proiektzioarekin amaitu ondoren eta testigantzarekin eta solasaldiarekin hasi aurretik

BIHAR 'INVISIBLES' DOKUMENTALA ETA SOLASALDIA IZANEN DA, LAKUNTZAN

"minutu batzuk" ematen ditu "jendea lasaitzeko". Dantzaria eta hizlaria pertsona bera dela ikus daiteke, eta publikoa erlazioatzen hasten dela azaldu du Larretak. "Baina ni erdi erotuta nagoenez eta umore berezia dudanez bromak egiten ditut eta giro polita sortzen da. Konturatzten dira ni hemen nagoela egon behar nintzelako eta umorea izan dela aurrera egiteko indarra eman didana".

Proiektu honekin oso zoriontsua dela esan du. "Nire konfort eremutik guztiz atera naiz. Ekintzaila bihurtu naiz, aurreko astean Madrilgo kongresu batean egon nintzen erasoagatik desgaitasun bat dudalako eta adibide bezala jarri ninduten; zer den ekintzaila izatea 47 urterekin eta nire proiektuak gainera helburu sozial bat izatea". Kontzientziak mugitu nahi ditu, gehienbat, gazteen artean. "Arazo honetatik urrun gelditzen diren kolektiboengana iritsi nahi dut". Ikastetxetan *InVISIBLES*en proiektzioak eta solasaldiak egiten ditu, eta gazteek oso ongi ulertzen dutela esan du. "Esaten didate irakasten dietena aspergarria dela, baina nirekin oso gustura daude. Haien kodeak erabiltzen ditudalako eta konektatzen dugulako".

Genero indarkeriarekin zerikusirik ez duten gizartearen kolektiboengana iristea da Larretaren proiektuaren helburue-

tako bat. "Harrigarria dirudien arren estatistikek diote gazteen erdia baino gehiagorendako genero indarkeria ez dela existitzen". Bestetik, estereotipoak apurtu nahi ditu, "jendeak uste duelako hau bakarrik kulturarik gabeko emakumeei gertatzen zaiela, marginaletan, eta ez da horrela. Parte hartu izan dudana talde lanetan emakume prestakuntza eta adimen handiko emakumeen zeuden. Zenbat aldiz harreman batean eta horrela indarkeria egoerara iritsi gabe pentsatu izan dugu, baina nola egon ninteen pertsona kaskar horrekin? Mundu guztiari gertatu zaigu!".

"Beste gauza bat aldarrikatu nahi dudana da horrelako egoera batetik pasatzen ari direnak ez direla lotsatu behar. Eraso-tzailea lotsatu behar da, eta ez indarkeria jasaten dutenak". Landa eremuan asko gertatzen dela konturatu da Larreta. "Ez bakarrik indarkeria egoera batean, bere harremanean zoriontsu ez dena edo egoera oso deseroso batean bizi dena eta lotsatu eta izkututzen da. Ez zen horre-

BESTEAK BESTE, GENERO INDARKERIA AZALARAZI ETA ESTEREOTIPOAK APURTU NAHI DITU

la izan behar. Erasotzen duenak edo bizitza txarra ematen duenak lotsatu eta burua makurtu behar du". Komunitatea egin behar dela esan du Larretak, "gizarte bezala behar bat dugu, modu erreal batean lagundu behar dugu, eta ez bakarrik ondoan duguna. Onerako eta festarako denak gaude, baina norbait gaizki dagoenean...". Herrian "harritu" zela esan du, "familien artean elkar laguntzen dute, baina horrek aterata ez eta horrek pena pixka bat ematen dit". Laguntzea oso erraza dela esan du: "Ez da heroiarena egin behar. Batzuetan esaten dute ea nola lagundu behar duten haiek. Pertsona bati laguntza eskaintzea asko da".

Bizitza

Larretak bere bizitza berregindu du, ezkondu da eta berriz ama izan da. "Gertaera hori nire bizitzan koska bat igotzea izan zen; horrela hartzen dut. Nire bizitza eskailera maila asko egon dira, eta honetarako inpultso gehiago hartu behar izan dut. Seguruenik ez da hartzen dudana azken maila. Bizitza horrela ulertzen dut: etapak eta zikloak dira". Sakanara bizitzera modu "barregarri" batean iritsi zirela kontatu du: "Nire senarra Gasteizkoa da eta ni Donostian bizi nintzen eta erabaki genuenean elkarrekin familia osatu nahi genuela, berak Arabako herri batean lan egiten du eta hori izan zen erreferentzia". Egunero kotxea hartzen zuten eta "erradio" zabaltzen joaten ziren. "Lakuntzara iritsi ginen eta herria asko gustatu zitzaigun. Hemen jarri genuen arrautza eta hemen gaude duela hamabi urte".

Erasoagatik desgaitasun bat du Larretak eta Nafarroako CO-CEMFE elkarteak kidea da. Buen Sitio produkturako kideek ikerketa bat egin zuten eta ondorioztatu zuten desgaitasunen enpoderazio tailerretan parte hartzen zuten emakumeen %40ak baino gehiagok indarkeria pairatu zutelako zutela desgaitasuna. "Marga Gutierrez produktorearen zuzendariak indarkeria eta desgaitasunaren inguruko dokumental bat egitea proposatu zigun: Amadas". Harrera oso ona izan du eta Iruñean hilabete bat baino gehiago egon da, Bilbon, Madrilen, Italian, Azerbaijanen eta beste hainbatetan ere aurkeztu dute. Iortian eta Sakanko gainetarako kultur etxetan eskaintzea gustatuko litzaioke.



ASTEKOA

JAVIER CASTEIG BARANDIARAN

Aukera ezin hobea

2021ean egindako euskararen kale erabileraren neurketaren datuak aurreko lastailean jakitera eman ziren.

Laburbilduz, esan daiteke Sakanan aditzen diren kaleko elkarrizketen laurdena euskaraz izaten dela, baina batez besteko horrek ezin du ezkutatu tartean dauden berezitasunak, adibidez, Arbizuko eta Etxarriko neurketak non kaleko elkarrizketen %70 edo gehiago euskaraz direla islatzen diren eta beste, muturrean, Altsasuko eta Olaztikoak, non %7 agertzen diren.

Orain adituek aztertuko dituzte datuak eta ondorioak eta plangintzak plazaratuko dituzte baina nabarmen gelditu da gauza bat dela euskararen ezagutza eta beste bat erabilpena. Eta euskararen erabilpenean bakarrik euskaldunok eta euskalduntze bidean daudenek eragin dezakegu. Gure esku dago eta hori da onena, eraginkorrak izan nahi badugu, gure esku denari, hau da, euskaraz egiteari, ekiten badiogu datuok hobetuko ditugu, eta horretarako ez zaio inori ez baimenik eskatu beharrik ezta euskara gabekoei, adibidez,

SAKANAN ADITZEN DIREN KALEKO ELKARRIZKETEN LAURDENA EUSKARAZ IZATEN DA

euskara ikas dezaten eskatu behar ere.

Ba hain justu, bihurtik aurrera, aukera ezin hobea daukagu, erronka honi ekiteko Euskaraldian parte hartuz eta konpromiso publikoa hartuz

euskaldunekin euskaraz egiteko eta euskalduntzeko bidean daudenekin poliki eta era ulergarrian egiteko.

Bi asteotan hizkuntza ohiturak aldatzen baditugu, nonbait, zailena hori baita, ziur handik aurrera, txapa kenduta ere, hizkuntza ohitura berriak mantentzeko gauza izanen gara.

Horregatik ni beti Ahobizi, eta ezagutzen nautenek dakitenez, ez hitzontzi ezta, are gutxiago, belarrifin.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eu

HARA ZER DIEN

Gertatzen da, eta badira horren erantzuleak

SAKANAKO BERDINTASUN ZERBITZUA

Azaroaren 25a ate joka daukagu eta, urtero bezala, elkarretaratzeen, manifestazioen eta adierazpenen bidez berriz ere gogora ekarriko ditugu emakumeen aurkako indarkeria betiketzen duten arrazoiak eta mekanismoak.

Hala ere, zenbait diskurtsotan zalantzan jartzen da berriro ere indarkeria hori, honako hau esanez: "indarkeriak ez du generorik". Horren aurrean, azaroaren 25ean, tinko azpimarratu nahi dugu indarkeriak baduela generorik eta, gainera, argi adierazi nahi dugu indarkeria hori egiturazko dela eta guztiz errotuta dagoela gizartean. Horrek azaltzen du zergatik

gertatzen den testuinguru kultural guztietan eta maila guztietan. Izan ere, indarkeria horren jatorria zein den jakin behar dugu, hura ezabatzen lagunduko duten egitura aldaketa sakonak sustatu nahi baditugu. Indarkeria horren egiturazko erroak eta izaera kulturala ukatzeak ez digu aurrera egiten uzten. Hori gutxi balitz bezala, egungo gizartea antolatzeke moduak femeninoa denari balioa kendu eta emakumeak mendekotasun egoeran jartzen ditu. Gizonak eragin eta emakumeak jasaten duten indarkeria da. Horregatik, aurten gizonen honakoa eskatzen diegu: gogoeta egin dezatela emakumeen giza eskubideen kontra doan sistema honetan

duten boterearen eta parte hartzearen inguruan.

Azken urteotan, gizon askok egin dute bat berdintasun aldarrikapenekin, eta maskulinitate hegemoniko tradizionalak ezarritako genero-aginduak berrikusi dituzte, gizarte berdinzaleago baten alde egiteko xedez. Hala ere, aurrera egin behar badugu, gizon gehiago modu aktiboan inplikatu behar dira eta normalizatutako portaerak (norberarenak zein besteenak) eta kultura matxista betiketzen duten sinesmenak identifikatu eta aldatu behar dira, horiek justifikatu gabe eta beste alde batera begiratu gabe.

Emakumeen aurkako indarkeria EGON BADA eta badira erantzuleak.

GUTUNA

Zuzenketa

ISABEL VILLAR GURRUTXAGA

UNANUKO KONTZEJUA

Azaroaren 10eko GUAIXEN argitaratutako albiste bati dagokionez, Unanuko Kontzejuak adierazi nahi du anbulatorioko eraikinaren fatxadako pintura, eskoletako horma konpontzeko lanak, eta plaza txukuntzeko lanak "HERRI BERRITZE PLANA"ri esker egiten ari direla. Plan hori Ergoienako Udalak kudeatu eta finantzatzen du. Beraz, Unanuko Kontzejuak ez ditu lan horiek adjudikatu, Ergoienako Udalak baizik.

"HERRI BERRITZE PLANAREN" bidez egiten diren lanen finantzaketa, adjudikazioa eta kudeaketa

osoak bailara hobetzea dute helburu, baita kontzejuen arteko loturak eta elkarkidetzaz sustatzea ere.

Gurekin harremanetan jartzeko

618 882 675

GUAIXE

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eu

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eu
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eu
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eu

Zuzentzailea:

Maite Iparragirre Astiz

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eu

Erredakzioa:

Maidar Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eu
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eu

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eu

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eu

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eu

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Industrialde txikia sortuko dute Ispording zaharrea

Ispording 2010ean ixtean jabetza Nasuvinsa enpresa publikoaren esku pasa zen. Lantegi berria Altsasuko Kooperatiba ari da lanean, baina zaharra bere horretan gelditu da. Nasuvinsak berriki Excavaciones Fermin Osés SL enpresari honako lanak eman dizkio: lantegi zaharra bota, obra hondakinak atera, lursaila garbitu eta zoru azpitik kutsadura kentzea. Lanak egiteko hamar hilabete izanen ditu eta trukean 417.558,9 euro (BEZ barne) jasoko ditu.

Nasuvinsak espazioa egokitze-ko beste lan batzuk egin zituen 2017an eta 2018an. Enpresa publikoa Hiri Jarduneko Plan Berezia egiten ari da orain. Haren bidez lursaila ordenatu eta kooperatibaren eta gainontzeko bost partzelen artean kale bat egitea aurreikusten du. Industrialde berriak 8.000 metro karratuko azalera izanen du gutxi gorabehera. Baina ezereen aurretik, Altsasuko Udalak oniritzia eman beharko dio planari.

Beste bi suhiltzaile Altsasuko parkerako

37 suhiltzailek (36 gizonezko eta emakumezko bat) diplomak eta segurtasun kaskoak astelehenean jaso zituzten, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdietako Eskolan Oinarrizko Sarrera ikastaroa gainditu ondoren

SAKANA

Oinarrizko sarrera ikastaroa gainditu ondoren, Nafarroako suhiltzaileen promozio berria dagoeneko dagokion parkean lanean ari da. 37 kide horietatik bi Altsasuko parkean ari dira lanean. Hango arduradun Pedro Gainzak azaldu duenez, "oraindik ez dago egutegia zehaztuta, eta zehazki zenbat suhiltzaile izanen garen ez dakigu oraindik. Baina 21 edo 22 artean dago". Azaldu duenez, "txanda bakoitzean gutxienez hiru suhiltzailek egon behar dute, eta haietako batek kaboia izan beharko luke. Beraz, gutxienez 21 suhiltzaile egonen dira". 7 kabo eta 14 suhiltzaile.



Promozio berriko suhiltzaileetako batzuk. NAFARROAKO GOBERNUA

Lanpostu horiek lanaldi oso-koak dira. Baina Altsasuko parkeko bi suhiltzaile Erreskate Teknikoko Taldean daude eta haien lan egutegiaren erdia Iruñean egiten dute, eta beste erdian Altsasun aritzen dira. Lan jardunaldi murrizketak duenik ere bada. Horrek, jakina, parkeko suhiltzaileen kopuruari eragiten dio. Gainzak azaldu duenez, "parkean egon beharreko suhiltzaile kopuruaren gutxienezko kopurua bete da. Aurreko urteetan askoz ere egoera okerragoetan egon gara". Materialari dagokionez, jakinarazi duenez, baso suteetarako zuten punpa zaharrena ordeztatu "berriago bat jaso dute. Eta hiri suteei aurre egiteko kamioi berria heldu den urtean jasoko dute.

Nafarroa erdialdean udan izan ziren suteak itzaltzen aritu ziren Altsasuko parkeko suhiltzaileak ere. Gainzak azaldu duenez, klima aldaketari ere erreparatu diote: "Sakanakoa ez da beste eskualde batzuetako egoera, baina egon dira garaiak, dena su hartzeko moduan zegoena". Eta gogoratu du hemen ere suterren bat izan dela.

A25 Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna

GERTATZEN DA, ETA BADIRA HORREN ERANTZULEAK

AZAROAK 25

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA
Mobilizazioak Sakanako zenbait herritan

Mank

AZAROA	17 19:00	"InVISIBLES" (Erd) Emma Larretaren dokumentala eta solasaldia ● OLAZTIKO KULTUR ETXEAN
	18 18:30	"URPEKAKARIAK" (Eusk) Haurrentzako bertso-antzerkia ● UMDIUNGO HERRIENTXEAN
	19 19:00	"InVISIBLES" (Erd) Emma Larretaren dokumentala eta solasaldia ● LAKUNTZAKO KULTUR ETXEAN
	23 18:30	"AGRESIONES SEXUALES MEDIADAS POR ALCOHOL Y OTRAS DROGAS" (Erd) Aitziber Bañuelos Ganuza ● UHARTE ARAKILGO UDALETXEAN
	24 19:00	"MAGMA MIA" (Eus) Beatriz Egizabalen bakarrizketa ● ARBIZUKO UDALETXEAN
ABENDUA	26 19:00	"BEHI JASA" ANTZERKIA (Eus) Boga Boga ● IURITZUNGO KULTUR ETXEAN
	27	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRA EMAKUMEEN ARTEKO SAREAK EHUNDU 11:00 topaketa 13:00 ekitaldia + "Pantxika Lamur" ● ETXARRI ARANATZ
	1 18:00	"KARENA" Aline Agirre ● UNANUKO ELKARTEAN
	9-10	NESKA GAZTEENDAKO AUTODEFENSA FEMINISTA IKASTAROA Izen ematea: berdintasuna@sakana-mank.eus ● OLAZTI



Astehenekoko talde argazkian Olaia Granizo Candelas, kuxkurtuta, erdian dago, lehendakaria atzean duela. NAFARROAKO GOBERNUA

"Irulegiko eskuarengatik jendeak zoriondu nau"

OLAIA GRANIZO CANDELAS ARKEOLOGOA

Leire Malkorra Renobalesek Irulegiko eskua lurretik nola ateratzen duen ikusten den bideoa altsasuarrak grabatu zuen. Astehenekoko aurkezpenean egon zen

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Arantzadi zientzia elkartearen Aranzategiaren Irulegi mendian egiten ari den arkeologia indusketan opatutako brontzezko pieza bat da Irulegiko eskua, astehenekoko ezagutu genuena. Eskuin esku baten forma du eta ahurrean lau lerroko inskripzioa dauka. Hizkuntza baskonikoz idatzita, adituen arabera "Euskal Herrian bertako hizkuntza idatzita agertu den lehenengo idatzkuna da". Piezak duela 2.100 urte atzera eramaten gaitu.

Astehenekoko arkeologia aurkikuntzak arkeologiarako bokazioa sortu zuen jendearengan?

Bai. Arkeologia beti diziplina akademiko bat bezala hartu da. Baina gure lana ez da bakarrik arlo akademikora mugatzen,

"IZOZTUTAKO ARGAZKI BATEN MODUKOA DA. BURDIN AROA GEHIAGO ULERTZEKO BALIOKO DU"

gizarteari eskaintzen dizkion hainbat elementu ere baditu. Gizarteari bueltan ematea eta zirkulu bat ixtea bezala da; garrantzitsua da gizartearendako. Ondarea, historia ez da bakarrik gurea, denona da. Guretako oso garrantzitsua izaten da halako emaitza eta oihartzuna. **Zer sentitzen da halako aurkikuntza baten parte zarenean?** Izan duen zabalkundea eta pasatzen ari dena, oraindik asimilatzen gaude. Baina hasieran shock moduko bat izan zen.

Zeren zuk, Olaia, Irulegi mendiko indusketan parte hartu duzu, ezta?

Hori da. Berez, indusketa 2018an hasi zen. Ni 2019an hasi nintzen eta, ordutik, uda guztietan egon naiz.

Zertan ari zarete Irulegi mendian?

2019an lagin zulo bat, indusketa txiki bat, egin genuen. Estratigrafia zein zen jakin nahi genuen. Herrixkako etxe baten paretaren bi aldeetan egin genuen indusketa, eremua zabaldu nahi izanez gero jakiteko zer estratigrafia geneukan. Gerora itsuan ez ibiltzeko egin genuen.

Lan hark emaitza izan zuen?

Bai, Mattin Aiestaran de la Sotillak (indusketako zuzendaria) erabaki zuen etxe baten perimetro guztia irekitzea eta pixkanaka-pixkanaka etxe hori industria. Eta 2021ean ondoko etxea irekitzea erabaki zuen. Orain arte bertan bi etxeetan gaude lanean.

Zergatik dira bereziak bi etxe horiek?

Indusketaren aurretik georadararen bitartez aztertu zen. Makina bat pasa zuten handik. Hark lurrera uhin batzuk bidaltzen ditu eta haiek bueltatzen diren moduaren arabera, lur azpian dauden materialak zein diren jakin dezakegu. Herrixkaren plano atera zen. Eta Aiestaranek ikusi zuen indusketa gunean egiturak beste tokietan baino hobeto ikusten zirela. Horregatik erabaki zuen han industea.

Burdin Aroko herrixka bat da?

Aiestaranek azaldu duenez, herrixka erasotua izan zen eta zigilatuta bezala gelditu zen. Horregatik kontserbazioa paregabea da. Dena bere lekuan dago. Jakin dezakegu sukaldea non zegoen, estrabia non zegoen, zein tokitan egiten zuten sua... Izoztutako argazki baten modukoa da. Burdin Aroa gehiago ulertzeko balioko du.

Eskua agertu zenean han zeunden?

Bai. Malkorrek pieza pixkanaka nola ateratzen duen ikusten den bideo hori nik grabatu nuen.

Irulegiko indusketan zein dira agertzen diren ohiko objektuak?

Burdin Aroko indusketa batean agertzen ohi direnak. Egunerokotasuneko objektuak izaten dira: nahikoa zatituta dagoen

"PALEOLITOKO ETA BURDIN AROKO INDUSKETA TEKNIKA DESBERDINA IZATEN DA NORMALEAN"

zeramika, kontsumitzen zutenaren hezurak... Kasu honetan, erasotua izan eta kolapsatu zenez, ikatz moduan eraikuntza egiturak kontserbatuta gelditu dira. **Halakorik opatu duzu?**

Ez. Baina gurea talde lana da. Egun hartan Malkorra han zegoen indusketa egiten eta berak opatu zuen. Baina gutako edozein izan zitekeen.

Aurkikuntzak informazioa eman eta hipotesi berriak sortzen ditu?

Bai, oraindik ikertzen ari dira eta adituek esanzen dute.

Aurkitutakoaren garrantziaren berri bazenuen?

Bai, egun batzuk lehenago jakin genuen. Aiestaranek sekretua gorde zuen eta sorpresa eman zigun esatean.

Kostatzen da halako sekretua isilpean mantentzea?

Bai, mundu guztiari kontatu nahi diozulako, eta ezin delako. Zaila da, bai.

Zer esan dizute etxeok, lagunek eta bestek?

Lagunak oso pozik daude. Gurasoak baita. Jendeak zoriondu nau.

Koskobilo II lezeoko indusketan ezagutu zintugun. Orain, berriz, Irulegin. Zein da baten eta bestearen aldeko aldea?

Normalean Paleolitoko eta Burdin Aroko indusketa teknika desberdina izaten da. Baina Irulegiko eskua bezalako materialak agertzen direnean, lanerako modua berdina izaten da. Horri lan fina deitzen diogu. Lan "latza" eta fina dago. Zeramika zati bat in situ, bere toki primarioan, ikusten dugunean lan finarekin aritzen gara. Paleolitiko garaiko aztarnekin bezala aritzen gara: zotzekin, brotxa txikiek... Buruan dugun arkeologoa lanean, irudi hori.

Zer, irudikatu behar zaitugu uda guztia indusketa batetik bestera?

Hala da, bietan aritzen naiz urtero. Arantzadi zientzia elkarrekin 2019an hasi nintzen. Hurrengo urtean Koskobilo II-n hasi nintzen.

Pentsatzen dut horrela asko ikasiko duzula, ezta?

Bai, izugarri. Bi mundu guztiz desberdinak dira. Teknika desberdinak ikasten dituzu, materialak ere desberdinak dira... Urtero zerbait berria ikasten da. **Zertan zabilta orain?**

Tesi bat egiteko beka baten esperoan nago. Eta arkeologian lanean. Arkeologian lanean segitzeko plana dut.

EUSKARAREKIN, GORA ETA GORA BETI!

ARBIZU



**GORA▲
GORA▲**

**FEST
2022**

50 ekitaldi baino gehiago,
Nafarroako txoko guztietan,
haur, gaztetxo eta familientzat,
**Euskararen Nazioarteko
Eguna** ospatzeko
Abenduaren 11ra arte

IKUSI EGITARAJA



FESTAK

LIZARRAGA SAN KLEMENTE FESTAK

AZAROAK 18 Ostirala

20:00 Euskaraldiaren hasiera ekitaldia, Loren bere akordeoiarekin giroa alaitzen. Lizarragako ardi tripota, frontoian. 22:00 Herri afaria, Azi Iturri Txokoan.

AZAROAK 19 Larunbata

12:00 Kalejira Amalur taldearekin. 13:00 Auzatea. Ondoren, Lizarraga Kantuz. 17:00 Haurrendako puzgarriak, frontoian. 18:00 Haur eta helduendako herri kirolak. Ondoren, txokolatada. 22:00 Herri afaria, frontoian. 00:00 Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

AZAROAK 20 Igandea

12:00 Kalejira Amalur taldearekin. 13:15 Meza nagusia. 14:00 Auzatea eta 1942ko kintoei omenaldia, auzoan. Ondoren,

Lizarraga Kantuz. 17:00 Haurrendako tailerrak, eskoletan. 17:30 Mus txapelketa, Azi Iturri Txokoan.

AZAROAK 23 Asteazkena

SAN KLEMENTE EGUNA 13:00 Meza. 14:30 Jubilatuen bazkaria, Bargazpin.



Elkartasun azoka antolatu dute Olaztin

Hurrengo hiru ostegun goizetan egoera onean dauden objektuak kultur etxean jaso eta abenduaren 18an frontoian eginen den azokan salgai jarriko dituzte. Objektuei bizi berria eman, prezio eskuragarritan eskaini eta Elkarri Laguntza lagunduko dute

OLATZAGUTIA

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak eta Olatzagutiko Udaleko kultura zerbitzuak eta ludotekak elkartasunezko bilketa eta azoka antolatu dituzte. Horiei testuingurua emateko zerbitzuko teknikari Begoña Zestau Baraibarrek "hiru data esanguratsu" nabarmendu ditu: azaroaren 20a, igandea, Haurren Eskubideen Nazioarteko Eguna; abenduaren 10a, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna, eta abenduaren 18a, Migrazioen Nazioarteko Eguna, "eskubide bat da".

Aitorrutako eskubide horiek guztiak kontuan izanik, abenduaren 18rako bigarren eskuko azoka antolatu dute. Udal pilotalekuan eginen da azoka. Han salgai jartzeko "ongi dagoen edozer gauza eraman daiteke", azaldu du Zestauk. Esate baterako, arropa, oinetakoak, jostailuak, liburuak, kirol materiala, galtzerdiak eta beste jaso nahi dituzte. Bilketa hurrengo hiru ostegunetan izanen da (azaroak 24, abendua 1 eta 15), 09:00etatik 12:00etara, kultur etxean.

Ekimenak helburu bat baino gehiago dituela gaztigatu du teknikariak: "bota beharrean, gauzei bigarren bizi ematea; berre-



Begoña Zestau Baraibar, oka jokorekin, eta Virginia Alonso Aparicio, kartelarekin.

rabiltzea. Salgai jarriko diren objektuak prezio sinbolikoa izanen dute, helburua baita objektuak berriz erabiltzea. Elkarri Laguntza elkarteari emanen zaio ateratzen den dirua eta saldu gabe gelditzen den guztia". Antolatzaileek olaztiarrak ekimenean parte hartzera gonbidatu dituzte.

Oka joko

Zerbitzuak oka jokoa moldatu zuten. "Hasiara batean lona baten gainean egin genuen, handian, Sakana guztian barna

erabiltzeko moduan. Orain joko beraren mahai formatua sortu dugu", azaldu du teknikariak. "Okaren jokoa zerbitzuak sustatzen dituen balioei egokitu dago". Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak jokoa ale bat Akelarre ludotekari oparitu dio. Zestauk azaldu duenez, "jokoan hainbat gauza lantzen dira: haurren eskubideak, aniztasuna zentzu guztietan". Jokoan diskriminazioak badu bere ondorioa: lauki batzuk atzera egitea. Bestelakoen berri ematen du ere.

GUAIXE FUNDAZIOARI aitortza

Euskarazko tokiko hedabideak biltzen ditu Tokikomek. Aurten 10 urte bete ditu eta taldeko proiektu guztiak saritu ditu, GUAIXE FUNDAZIOA barne: "zailtasun larriei buelta emateko modua topatu eta eskualdeko komunikazio proiektua egonkortzen asmatu du GUAIXE FUNDAZIOAK, betiere komunitateak lagunduta eta sare ikuspegia oso presente izanda".



TOKIKOM



HIZKETAN
BELEIXE IRRATIAREN
ELKARRIZKETA GUZTIAK:
WWW.GUAIXE.EUS

107.3 FM
beleixe



Guaixeko langile eta berriemaileek 1995ean egindako afaria. ARTXIBOA

Datuak

Argazki kopuruak, urteka

1997	378
1996	361
1998	204
1995	203
1999	113
2002	82

Argazki kopuruak, herrika

Altsasu	470
Etxarri Arantatz	208
Olatzagutia	111
Lakuntza	106
Irurtzun	91
Urdiain	80
Arbizu	69
Iturmendi	63
Bakaiku	60
Ziordia	59

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Aspaldi itxita zeuden karpetak zabaldu eta barruan zeuden argazkiak begiratu. Urteka, gaika eta herrika antolatuta daude, baina erabileraren poderioz, nahasketaren bat ere bada. Horiek atzeman ondoren, GUAIXE fundazioaren paperezko argazki artxiboa digitalizatzen eman ditu azken asteak Gema Lakuntza Lopez lankideak. Tarteka, argazkia eskuan, "ai ama!" eska entzun dugu, edo barre txikiak egiten. Harritu da Bildotsaren kofradiak Etxarri Arantatz 1996ko ilbeltzean egindako bilkuraren berri izatean. Altsasuko Domingo Lumbier Eskolen eraikinak beste garai bateko oroitzenak ekarri dizkio. 1995eko Korrika Kulturaleko Uharte Arakilgo eta Lakuntzako herri kirol saioak ikustean jabetu da gaur egun halakorik ez dela egiten. 1995eko Arbizuko duatloiko argazkiak gogoan dituela, janzkeran izandako aldatetarak ere harritu dute.

Irudiak digitalizatzen ari zela, tarteka, Lakuntzak galdetu izan du: "ba al dakizu zein den hau?" Argazkietako pertsonak identifikatzen lankideez aparte, fundazioko kide izan ziren Amaia Amilibia Salgado eta Izaskun Bengoetxea Delgadoren laguntza izan du, baita Floren Beraza Gastesirena ere. Lana despedituta, 1994an fundazioa sortu zenetik 2004ra bitarteko paperezko 1.522 argazki dira digitalizatu dituenak.

GUAIXE FUNDAZIOAK bere artxiboko 1.522 argazki digitalizatu ditu

GUAIXE hilabetekarian eta OIXE astekarian 1994 eta 2004 urteen artean argitaratutako argazkiak dira paperetik ordenagailura pasa direnak. Euskal Wikilarien Kultur Elkartearekin batera garatutako elkarlan proiektu baten helburua izan da

Bilera

Fundazioaren egitekoen artean zegoen eginkizuna zen irudi artxiboa digitalizatzea. Baina horri azken bultzada eman diena Euskal Wikilarien Kultura Elkartea (EWKE) izan da. Haren izenean Anabel Arraiza Artieda fundazioarekin harremanetan jarri zen martxoan eta elkarlan proposamena egin zuen. Arraizak azaldu zuenez, "Wikipedia hobetu eta zabaltzea dugu. Euskaraz, auzolanean. 2020an Ttapi Ttapa aldizkariarekin landutako proiektuak emaitza bikainak izan zituen (2.000 argazki digi-

talizatuta) eta GUAIXErekin antzeko elkarlana egin nahiko genuke".

San Joan egunez, Tokikom, EWKE eta GUAIXEko ordezkariak bilera egin zuten, eta etxerako lanekin atera ginen. Garilaren baterako jakinarazi zuen fundazioko koordinatzaile Goizeder Anton Iturraldek 1.500 bat argazki izanen zirela, "baina baheketa egin beharko da, nahikotxo errepikatuta daudelako". Gaineratu zuenez, "aldizkarietan argitaratu ondoren, egileei edo jabeei bueltatutako argazki asko daude. Hor hutsune bat dugu".

Denon eskura

Egindako lanak GUAIXE fundazioari balio izan dio bere argazki artxibo guztia formatu digitalizateko. Sinatutako akordioari jarraituz, digitalizatutako argazki funtsa EWKEren esku

geldituko da eta Wikimedia Commons atarian jarriko dituzte. Azken hori Wikimedia fundazioaren proiektu bat da zeinetan irudi, soinu eta multimedia fitxategi askeak biltzen diren. Wikipedia fundazioaren proiektu

tu guztiak bezala Wikimedia Commons ere lizentzia aske du, Creative Commons edo CC. Beraz, atarian jarritako edukiak edozeinek erabili eta editatu ditzake. Aukera hori izanen da GUAIXE FUNDAZIOko argazkiekin ere aurki, CC lizentzia librea partekatuko baitira. Geroz, argazki horiek nahi duen guztiak hartu, eta nahi duen funtziorako erabil ditzake. Baldintza bakarra bete behar da: argazkiaren jabetza intelektuala aitortzea, hau da, irudia GUAIXE-rena dela esatea. Argazki horiek bere baitan erabiltzeaz aparte, badago editatzeko aukera ere. Hori egiten den kasuan, argazkiaren egilea nor den adierazi beharko da, eta baita argazki hori editatuta dagoela ere. Gainera, behin hori eginda, berriz ere lizentzia librea partekatu beharko da irudia.

BiLTOKi
TABERNA • JATETXEA

Eguneko menua 11 €

Menu berezia 15 €

948 562 348 • Altsasu

xapatero
taberna

Etxeko krocketak eta bokatak

948 460 162 • Etxarri Arantatz

1400 eurotako soldata eta 1260 pentsioa gutxienez

Euskal Herriko Karta Sozialeko gizarte eragileek eta sindikatuek gutxieneko hori aldarrikatuko dute larunbaterako deitutako manifestazioetan. Altsasukoa, 17:30ean Foru plazatik abiatuko da

SAKANA

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartako ordezkariak salatu dutenez, "ekonomiako eliteen mesedetan langileei lapurreta egiten ari zaie eta biztanleriaren pobretze prozesua azkartzen ari da". Gaztigatu dutenez, "Euskal Herrian 2021ean 2008an baino 103.000 pertsona gehiago zeuden pobretze arriskuan, hau da, %44 gehiago". Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartako ordezkariak salatu zituzten, "bilakaera goranzkoa da, joera estrukturala da".

Larunbateko manifestazioen deitzaileek azpimarratu dutenez, "garestitzen ari da bizitza eta erosahaltenaren galerari aurre egiteko prestazio sozialak ez dira nahikoak, okerrera doaz, zerbitzu publikoen gainbehera areagotzen den neurri berean". Kartako kideek gaineratu dutenez, "esparru guztietan erosahalmena galtzen ari da; soldatetan, pentsioetan, administrazioko



Pentsio duinen aldeko mugimenduak astelehen eguerdian egindako bilkura.

langileen soldatetan, prestazio sozialetan eta abarretan". Bitartean IbeX 35-eko enpresen etekinak 2021ean 2019an baino %83 handiagoak izan zirela salatu dute. "Hori gertatzen ari da Gobernuen aldetik ez dagoelako

borondate politikorik politika neoliberalak alboratzeko".

Aldarrikapen zehatzak

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartako ordezkariak larunbateko deialdiarekin bat egitera

deitu dute, "bizi baldintza duinak eta prezioen kontrola ardatz hartuta, langileen mesedetan egingo diren politikak eskatzeko; langileei oinarritzeko eskubide eta beharrezkoak ziurtatuak izan daitezten eta pertsona guztientzat prestazio sozial nahikoa egon dadin. Aberastasunaren bidezko banaketarako zerga erreforma bultzatzeko".

Horiekin batera beste aldarrikapen zehatz batzuk ere kalera-tuko dituzte: soldatak eta pentsioak Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) arabera eguneratzea, 1.400 euroko gutxieneko soldata, 1.260 euroko gutxieneko pentsioa, soldaten %24ko genero arrakalarekin bukatzea, pentsioen %37ko genero arrakala desageraraztea, arreta eta zaintza zerbitzu soziosanitarioen sare publiko unibertsala eta bermatutako errentan izaten ari diren murrizketak berehala gelditzea.

Deialdiarekin bat

Sakanako pentsiodunen mugimenduak deialdiarekin bat egin eta manifestazioa deitu du Altsasun larunbaterako. Haren leloa da *Soldatak eta pentsioak benetako KPIarekin. Galdutakoa berreskuratu. Aberastasuna banatu*. Pentsiodunen mugimenduko kideek gaitzetsi dute "sistemaren egungo krisiaren aurrean botere publikoek duten alternatiba langile klasea pobretzean sakontzea" dela, "pertsona batzuk gero eta aberastasun

handiagoa metatzen duten bitartean zerbitzu publikoak murriztu, emakumeak zaintza lan ikusezin aitortu gabekoetara kondenatu eta planetako ekosistemak suntsitzen ari dira".

Soldata eta pentsioen erosteko ahalmenaren galera salatzearekin batera, mugimenduak "gure eskubideen aurkako aurrez aurreko eraso jasaten" ari garela dio. Eta horien hiru ondorio zerrendatu dituzte, zehaztuz emakumezko modu berezian eragiten diela: etxebizitzaren eta alokairuen neurrigabeko prezioa, prekarizazio eta murrizketen bidez zerbitzu publikoen okertzea eta ekosistemak eta bizitza defendatzeko erabaki ausartak eskatzen dituen klima krisia.

Ibarreko pentsiodunen mugimenduko kideen iritziz, "konponbidea posible bezain beharrezkoa da". Horregatik aldarrikatu dituzte ere: aberastasunaren banaketa justua, zerbitzu publiko unibertsalen bermea, pertsona guztiendako bizi baldintza materialak (etxebizitza, energia, elikadura eta gizarte eskubideak), gerra agertokian bakearen alde egin dute eta natura baliabideak eta bizitza bermatzea.

BIZI BALDINTZA DUINAK ETA PREZIOEN KONTROLA ARDATZ, LANGILEEN MESEDERAKO POLITIKEN ESKAERA

DUELA 25 URTE...



Futbol zelaiari berritze lanak

Uharte Arakilgo Itxesia futbol zelaiaren ertzetan lurra botaz hura zabaldu zuten udazkenerako, 98 metro luze eta 58 metro zabal utziz. Gainera, entrenatzaileen ordezkarien aulkia hegal batetik bestera aldatu zituzten eta mendebaldean jarri, neguan babestuago egoteko. Udaberriari ateak atzeratuko zituzten. Lanak 5 milioi pezeta (30.050,61 euro) balio zuen. Gobernuak 1,6 milioi eman zuen, eta gainontzekoa Aralar Mendi elkarteak ordaindu zuen. Aurrekontua merkatzeko jokalariek auzolanak egin zituzten.

Sakandarrek Errigorako 224 kutxa eskatu dituzte

Euskarari, elikadura burujabetzari eta auzolanari bultzaka darrai Errigorak

SAKANA

Errigorako kide Ibai Sueskunek jakinarazi duenez, 13.000 kutxa baino gehiagoren eskaerak jaso dituzte, haietatik 224 Sakanatik. "200.000 euro gehiago izango dira Lodosa, Tuteran eta Bianako ikastoletan, Ager osoko AEK-ren euskaltegiaren bekak banatzeko, eskoletan D ereduko lerroak bultzatzeko eta Agerraldia egitasmoaren baitan urte guztirako agenda zabala osatzeko", azaldu du.

Sueskunek jakinarazi duenez, eskaerak dagoeneko banaketa



Errigora kutxak. UTZITAKOAK

puntuetan daude. Irurtzunen Iratxo elkarteak jaso ziren eskaerak eta hango arduraduna eskatzaileekin harremanetan jarriko da. Gauza bera Irañetan. Uharte Arakilen eskaera egin dutenek gaur jaso ditzakete udaletxean kutxak, 19:00etatik 20:30era. Arbizuko eskolan jasotzeko orduak honakoak dira: gaur 19:00etatik 20:00etara eta asteartean 13:45etik 14:15era eta 17:00etatik 19:00etara. Etxarri Aranatzan heldu den ostiralean banatuko dituzte, estalopean, 18:00etatik 20:00etara (ikastolakoak barne). Azkenik, Altsasun bi banaketa puntu daude; Iñigo Aritza ikastola eskaera egin dutenekin harremanetan jarriko da eta AEK-ren euskaltegiaren eskaera egin dutenak astelehenetik aurrera pasa daitezke handik.

'Euskaraz barra-barra' marka berria zabaltzen

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak sortu dute marka bateratuta, bezeroei adierazteko euskaraz egiteko aukera dutela marka duten lekuetan. UEMAko hamar herri dira aitzindariak, tartean Etxarri Aranatz

SAKANA

Euskararen erabilera arlo sozioekonomikoan areagotzeko helburuarekin, badira euskara erabiltzeko eta sustatzeko lanean ari diren saltokiak, enpresak eta entitateak identifikatzen dituzten ziurtagiriak, euskaraz aritzeko eta zerbitzua euskaraz eskaintzeko gaitasuna aitortuz, bezeroek eta herritar guztiak horren berri izan dezaten.

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak zerbitzu sektorean gaitasuna identifikatuko eta aitortuko duen marka berria eta bateratua sortuko dute: *Euskaraz barra-barra*, eta eus-



Marka berriaren irudia. UTZITAKOA

kararen lurralde guztietara zabalduko dute ilbeltzean.

Marka bateratu horren helburua da bezero euskaldunei adieraztea euskaraz egiteko aukera dutela leku edo entitate horretan, *Euskaraz barra-barra* marka duten guneetan bermatuta egongo delako euskaraz ulertzeko gaitasun nahikoa badagoela. Horregatik, zehazki, gaitasunari lotuta egongo da marka banatzeko irizpidea.

Euskal Herri osora zabaltzeko aurretik, UEMAko kide diren hamar herri izango dira lehenengoak marka zabaltzen. Horien artean dago Etxarri Aranatz. Udalak ekimenarekin bat egin du eta informazio gutuna bidali die establezimenduetako arduradunei. Markaren berri emateaz aparte, gutunean jakinarazi zitzaizen aste honetan establezimendutik UEMAko teknikaria pasako zela ekimenaren berri ematera, zalantzak argitzera eta ekimenaren nondik norakoak zehazteko.

Bat egiteko deia

Marka sustatu duten erakundeek zerbitzu sektoreko profesionalei

dei egin diete markarekin bat egin dezaten: "bezeroari arreta bere hizkuntzan eskaintzea zerbitzuaren kalitatea bermatzeko ezinbesteko oinarria denez, ohi bezala zure negozioarendako zerbitzurik onena eskaintzeko ahaleginean jarraitzera eta ekimen berri honetan parte hartzera gonbidatzen zaitugu", adierazi diete, ekimenaren berri emateko merkatarientzako eta ostalarientzako prestatutako gutunean. Horren bidez, bezeroei dagokien arreta egokiena ematen segitzera ere animatu dituzte.

Sustatzaileek herritarrei ere dei egin diete ekimena kontuan har dezaten erosketak egiterakoan eta ostalaritzako zerbitzuak hautatzean. Izan ere, *Euskaraz barra-barra* marka izango duten lekuetan euskaraz aritzeko modua izango dute, eta horrek "hainbat aurreiritzi baztertzeko eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ere bide eman diezaieke bezeroei. Beraz, euskaraz lasaiago eta gehiago aritzeko modua izango dutenez, gure herrietako zerbitzu sektorea ez ezik euskara ere hauspotzeko aukera izango dute ekimen honekin".

Euskal eduki sortzaile berrien kabia

"ARNASETIK" BIDEOSORMEN LEHIAKETAREN LEHEN EDIZIOAK SORMENA SUSTATU DU EUSKARAREN ARNASGUNEETAKO GAZTEEN ARTEAN.

Euskaraz sortuko duten sortzaileak behar ditu euskarak, eta hauen arrastoaren atzetik euskararen amasguneei bisita egin die "Amasetik" bideosormen lehiaketak. Arnasa Gara ekimenak antolatutako lehiaketa honen lehen edizio hau amasguneetan bizi diren 10-16 urte bitarteko gazteboiei zuzendu zale, bai eta amasguneetako ikasleak jasotzen dituzten ikastetxeetako ikasleei ere. Irailan abiatutako "Amasetik" sormen



lehiaketak urriaren 28an izan zuen amaiera gala, Arnasa-Villabonako Gurea Antzokian. Lehiaketaren lehen edizioa arrakastatsua izan da. Adinaren arabera hiru kategoria izan ditu lehiaketak, eta kategoria bakoitzean erronka bati erantzun behar izan diote, guztiak euskararekin eta amasguneetako hizkuntza-chiturei zein bizipenei lotuak.

Sari banaketa

Julen Portillo euskal eduki sortzailea izan zen gidaria, eta Sara Alonso musikariak hiru

pieza eskaini zituen teklatuarekin. Julen Portillo zarautzitarra da, eta Sara Alonso aramaloarra; biak udal euskaldun batean eta amasgune batean jaiozkoak, eta biak ala biak euskaldun sortzaile dotoraak.

Arnasa Gara ekimena euskararen amasguneen garrantzia gizarteratzeko eta bertako herritarrek ahalduzko helburuarekin jaitzeko, UEMAk, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak sustatuta. Aurten "Amasetik" sormen lehiaketa izan du ardatz ekimenak, eta amasguneetako

10-16 urte bitarteko gazteboiei zuzendu zale.

99 lan jaso ditu epaimahaiak eta haien kalitatea azpimarratzekoa izan da.

Arnasa Gara ekimenak amasguneetako gazteei esperientzia berriak eskaintzen jarraitzeko asmoa du.

gazteboienak izan ditu jomugan, haien hizkuntza ohituren inguruan gogoeta egiteko eta haien sormena sustatzeko. Izan ere, euskaldun eduki sortzaile gisa ere funtsezkoak dira euskararen biziberritze prozesuan.

Etorkizunera begira

Gazteboiek edukien sorkuntzarako duten grinaren erakusle izan da "Amasetik" bideosormen lehiaketaren lehen edizioa. Hori dela eta, Arnasa Gara ekimenak amasguneetako gazteei gogoeta piztu eta hizkuntza ohituretan eragiten jarraitzeko asmoa du.

Info gehiago: www.arnasagara.eus



Belarriprest eta ahobiziren lagun egin diren Irurtzongo iratxoek Euskaraldian parte hartuko dute. ITZIAR MATXAIN

Hasi da hitzez ekiteko garaia

Gaur hasi da hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa: Euskaraldia. Abenduaren 2ra arte, 15 egunez, zazpi lurraldeetan eta diasporan barrena euskaldun sare zabal batek ahobizi eta belarriprest rolak hartu dituzte

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Hiru hitz ditu aurtengo Euskaraldiaren leloak. Aurrenekoari erreferentzia eginez, Irurtzongo batzordeko Blanka Ilundain Etxeberriak esan duenez, "hitza da komunikatzeko dugun tresnarik indartsuena. Ahobiziek eta belarriprestek hitza eskainiz eta hitza eskatuz jokatzeko dugu". Azpimarratu duenez, "hitzekin zubiak eraiki eta sareak jos ditzakegu. Hitzez sentitzen gara komunitate". Eta "hitzarekin elkar eragiten dugula" gaineratu du. Ilundainen esanetan, ariketa sozialak iraunen dituen hamabost egunetan "hitzez arakatuko ditugu ezezagunak zaizkigun territorio berriak".

Bakaikuko batzordeko kide Arantxa Jungitu Aseginolatzen leloko bigarren hitzari erreparatu dio. Bere iritziz, "ekintza da nahi dugun hori errealtate bihur-

tzeko baliabidea. Ekimenen bidez piztu dugu komunitatea, mantendu dugu sua bizirik. Ekinez lortuko dugu kalea irabaztea". Bakaikuarrak gogorarazi duenez, "ekintza herria gara, milaka lagun mugiarazi eta auzolanean aritzeko gaitasuna duen herria". Azpimarratu du Euskaraldian milaka boluntarioren ekintzak lotuko direla eta, horrela, "ekinez irabazten ditugu espazioak, babesguneak, ariguneak. Ekinez egingo ditugu gure elkarte, enpresa eta erakundeak euskararentzako abegikor". Horregatik, ekiteko dei egin du: "harreman-sareak ugaritzeko,

"HARREMAN SAREAK UGARITZEKO, EKIMENA OHITURAK ALDATZEKO, EKINA INERTZIAK ASTINTZEKO"

ekimena ohiturak aldatzeko, ekina inertziak astintzeko".

Leloko azken hitzaren inguruan Lakuntzako batzordeko Ainara Lopetegi Lopez hizketatu zaigu: "txapak jarrita ingurukoei gure nahia erakusteko garaia iritsi dela adierazten dugu a. Gainera, babesturik, taldean, batera aritzeko garaia da Euskaraldia". Lakuntzarraren iritziz, "orain da pauso sendoak emateko garaia. Egindako aukera pertsonalak eta kolektiboak gehituz bide berriak zabalduko ditugulako eta, horrela, ohiturak eta joko-arauak aldatuko ditugulako". Hiru batzordeetako kideek nabarmendu dute Euskaraldian zehar eskuratzeko diren lorpenak, "nahiz eta txikiak, ertainak edo handiak izan, beste askorekin batera gizartearen inertziak aldatzeko baliagarriak izanen dira". Iritsi baita hitzez ekiteko garaia.

Euskaltzaleek erronkak azaleratu dituzte

Euskaraldian zein hizkuntza ohitura berri lortu nahi dituzten zehatz dakite ahobiziek eta belarriprestek

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Azken bi asteetan ibarreko makina bat herritan *Hitzez ekiteko* ekitaldiak antolatu dira Euskaraldia dela eta. Herrietan sortutako batzordeek Euskaraldiko banderolak eta beste saldu, izenak hartzeko eta txapen banaketarako ekitaldiak antolatu dituzte gehien bat. Horrela jaso dute sakandar ugari belarriprest edo ahobizi txapa. Baina, ohi bezala, azken momentuan izena eman eta gero txapa eskuratzeko larri ibili denik izan da bazterretan. Eta, gainera, ez zuena aurreko edizioetako txaparik etxean opatzen.

Aipatutako ekitaldietan batzordekideek sakandarrei Euskaraldiaren bizipen hobea izateko modua azaldu diete: nor bere buruari erronka edo helburu bat jartzea. "Euskaraldirako erronka edo helburu bat edo batzuk jarritz gero, ariketa sozialak irauten duen bitartean hori betetzen ari den ebaluatzeko aukera izanen dugu. Eta helburua edo erronka betetzeko neurriak har ditzakegu Euskaraldia bitartean. Ariketa bukatzean ere gure helburuak lortu ditugun ebaluatzeko aukera izanen dugu", azaldu digu Sakanako Euskaraldiko ardura eta Olatzagutiko batzordekide Amaia Iparragirre Mendiak. Gaineratu duenez, "behin ariketa soziala bukatuta, jarritako erronka edo helburua bete dugun jakinen dugu. Lortu badugu poza handiagoa izanen da. Ez badugu lortu zertan hobetu dezakegun jakinen dugu".

Iparragirrek azpimarratu duenez, "erronkak eta helburuak norberaren hizkuntza ohiturak aldatu eta inguruko pertsona eta erakundeetan eragiteko tresnarik eraginkorrenak dira". Gaineratu duenez, "benetako erronka Euskaraldiko 15 egunen ondoren lortutako hizkuntza ohituren aldaketari eustea da".



AIDA SANCHEZ GARRIZ
LAKUNTZA
Erronka:

Nire semeendako eredu izatea.
Zer Euskaraldi mota espero duzu?
Espero dut aukera aprobetxatzea, ausarta izatea eta euskara gehiago erabiltzea.



GORKA MARTINEZ SOLIS
ALTSASU
Erronka:

Lanean, nahiz eta erdalduak egon, euskaldunekin euskaraz aritzea. Taldean erdaldu bakarra egon eta gainontzekoak euskaldunak izatean askotan errazena da erdaraz hastea.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?
Honek gora egitea eta aurrekoan baino gehiago izatea.



IRENE LARREA ARAÑA
BAKAIKU
Erronka:

Jarraitzea euskaraz aritzen eremu eta jende guztiarekin.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?
Euskaraldi kontzientziatuago bat espero dut.



LEIRE LARDIZABAL AZURMENDI
OLATZAGUTIA
Erronka:

Ingurukoekin euskaraz gehiago hitz egitea.
Zer Euskaraldi mota espero duzu?
Anitzagoa izatea.



**ANE IRIARTE MEDEIRO ETA
IRUNE ANSA LAZKO**

IRURTZUN

Erronka:

Dakitenekin beti euskaraz mintzatzea eta egunerokoan gehiago erabiltzea; nahiz eta amorrua eman, lagunen artean gaztelaniaz hitz egitera oso ohituta nago.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Euskarak pisu handia izanen duena.



AURKENE ORMAZABAL FUSTE

ZIORDIA

Erronka:

Anaiarekin euskaraz hitz egiten saiatuko naiz.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Euskararekiko kontzientzia gehiago sortzea espero dut.



BEA MORALES PEREZ

ALTSASU

Erronka:

Alaba izan dugu eta berarekin gehienetan euskaraz egiten saiatuko naiz. Eta, horretaz aparte, kuadrillan hasi gara.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Jendea gero eta gehiago euskaraz aritzea. Eta jende asko animatzea.



EKHI ETXEBERRIA KAIUELA

BAKAIKU

Erronka:

Euskaraz gehiago bizitzea.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Iraunkorra bi aste horietan, eta etorkizuneko.



GOIZARGI NAVARRO OSINAGA

IRURTZUN

Erronka:

Semeekin euskaraz hitz egitea, eta beraiek hitz egitea ere bai.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Euskara gehiago hitz egitea Irurtzunen, kalean euskara gutxi entzuten baita, umeen artean ere.



GORKA URTEAGA ARDUIA

BAKAIKU

Erronka:

Euskara gehiago sustatzea.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Arrakastatsua izatea.



IGOR CERRILLO ARANA

ZIORDIA

Erronka:

Alabarekin Whatsapez euskaraz egingo dut.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Interesgarria izanen da. Aurtengoa jendetsuagoa izanen da. Taberna daukadanez, aukera gehiago izango dut euskaraz aritzeko.



IÑAKI LIZARRAGA MADINABEITIA

ITURMENDI

Erronka:

Euskaraz hasten diren, baina erdarara aldatzen diren elkarrizketetan euskaraz hitz egiten mantentzea. Gertuko bi pertsona aukeratu ditut, hemendik aurrera haiekin lehenengo hitza beti euskaraz egiteko.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Orain arte egin den Euskaraldirik potenteena izatea espero dut.



IRAITZ BERASTEGI RAZKIN

LAKUNTZA

Erronka:

Nire kuadrillan euskara gehiago entzutea.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Jarritako helburua betetzea.



IRATI FLORES MENDIA

ZIORDIA

Erronka:

Euskaraz ez dakien amari esango diodan lehen eta azken hitzak euskaraz izango dira.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Hizkuntza ohiturak pixka bat aldatzea espero dut.



ISA GALLEGU MARTINEZ

IRURTZUN

Erronka:

Egunero euskara pixka bat erabiltzea klasean, eta klasetik atera ondoren ere bai.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Bost urte barru euskara normaltasunez erabiltzea.



IZASKUN LANDA LASA

OLATZAGUTIA

Erronka:

Nire anaiarekin euskaraz hitz egitea.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Euskaraz hitz egiteko ohitura hartzeko baliagarria izatea espero dut



JON OTAEGI AMILLANO

ALTSASU

Erronka:

Lantoki berri batean nago eta orain arte gaztelaniaz egin dugu. Lankideekin euskaraz hitz egiten hasi nahi nuke.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Espero dut lehenengo Euskaraldia bezala izatea, grina hori sentitzea berriz ere. Bigarrena hala holakoa izan zen eta oraingoa ilusio gehiago egotea.



JON ZUFIAURRE LASA

OLATZAGUTIA

Erronka:

Hizkuntza ohiturak aldatzea.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Lehen Euskaraldiriko ilusioa piztea.



JOSETXO KINTANA LARRAZA

BAKAIKU

Erronka:

Nire inguruko euskaldun belarri motxekin euskaraz egitea.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Egunerokotasunean baino euskara gehiago entzutea.



MERTXE IRIARTE AZPIROZ

IRURTZUN

Erronka:

Mundu guztiarekin lehen hitza euskaraz egitea.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Jarraipena izatea eta dendan aukera gehiago izatea euskaraz hitz egiteko.



NEKANE LAKUNTZA JAÑEZ

OLATZAGUTIA

Erronka:

Euskara gehiago erabiltzea.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Jendearen konpromisoa handia izatea.



OSANE ORELLA SAN MARTIN

ETXARRI ARANATZ

Erronka:

Klaseko euskara giroa mantentzen saiatuko naiz.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Espero dut ondoren ere klaseko giroa mantentzea eta euskaraz hitz egitea errazagoa izatea.



PAULA JUNGITU ASEGINOLATZA

BAKAIKU

Erronka:

Euskaraz hitz egiten ez dudan jendearekin hitz egiten hastea.

Zer Euskaraldi mota espero duzu?

Parte hartzaile handikoa izatea.

**BIKAIN
GARAJEA**



**Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila**

948 460 037 Arbizu

Sakandarren Behobia

ATLETISMOA Guztira 55 sakandarrek osatu zuten 57. Behobia-Donostia, giro paregabea, joan zen urtean baino bat gutxiagok. Herri lasterketarik ezagunenean mustu ziren Jabi Gasanz altsasuarra eta Marta Irañeta irurtzundarra izan ziren azkarrenak

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Beste behin, 57. Behobia-Donostia lasterketa korrikalarien festa ederra izan zen. Fortuna klubak antolatutako lasterketak zituen 20 kilometroetan barna jende andana zegoen parte hartu zuten milaka kirolariak animatzen, giro bikainean. Pandemiaren murrizketa guztiak alde batera utzita, normaltasunez ospatu izan zen proba berezia. Probak zapore kataluniarra izan zuen, bai parte hartzeari dagokionez -ia 6.500 atleta ka-

taluniarrak ziren- eta baita kirol merituak aintzat hartuta, probako bi irabazleak, Nan Oliveras (1:01:21) eta Cristina Silva (1:11:31) kataluniarrak baitziren, Oliveras Olotekoa eta Silva Bartzelonakoa. Lehen euskaldunak Chakib Lachgar (1:02:00, laugarren postuan) eta Elena Silvestre (1:14:02, hirugarren postuan) errenteriarrek izan ziren.

Beroa izan zen lasterketaren protagonista nagusia, termometroak 20 gradutik gora markatzen baitzuen lasterketa pil-pilean

zegoenean. Antolakuntzako bozgorailuetatik, ongi hidratatzeko eta gehiegi ez estutzeko deia egiten zieten korrikalariari. Hala ere, 125 pertsonak bero kolpea jasan zuten eta osasun langileek aurrekoek gain, bi bihotzeko artatu behar izan zituzten.

Kopuruak

Ia 30.000 korrikalari zeuden izena emanda Behobia-Donostia herri lasterketan, 29.732 korrikalari zehazki, eta azkenean 25.753 pertsona irten ziren. Ho-

rietatik 24.184 iritsi ziren helmugara, 1.234 deskalifikatu zituzten eta 341k lasterketa utzi egin zuten. Emakumeen parte hartzeak igotzen jarraitzen du, korrikalarien %28,53 emakumezkoak baitziren.

Behobia-Donostia osatu zuten nafarrak 1.114 izan ziren. Horien artean daude proba nagusia bukatu zuten 53 sakandarrek, 43 gizon (%81) eta 10 emakume (%19). Eta baita irristaketa modalitatean aritu ziren bi sakandarrak ere. Beraz, guztira 55 sakandarrek osatu zuten Behobia-Donostia, joan zen urtean baino bat gutxiagok. Korrikako proban Jabi Gasanz altsasuarra (1:10:35) eta Marta Irañeta irurtzundarra (1:34:05) izan ziren lehen sakandarrak, eta irristaketan David Gonzalo uharte arakildarra, sailkapen absolutuan bederatzigarren postuan (35:34).

24.184 KORRIKALARIK OSATU ZUTEN BEHOBIA-DONOSTIA. HORIETATIK 55 SAKANDARRAK ZIREN

Sakandarrak

Sakandarrak Donostia-Behobian (20 km)

Korrika

Gizonak:

1. Nan Oliveras	1:01:29
115. Jabi Gasanz	1:10:35
128. Asier Estarriaga	1:10:49
170. Sergio G. Eulate	1:11:46
201. Eukeni Goikoetxea	1:12:22
290. Ivan Sobredo	1:14:09
453. Aritz Munarriz	1:16:39
1029. Javier Borrega	1:21:11
1213. David Mutiloa	1:22:26
1394. Iñaki Azkona	1:23:30
1666. Emilio Guirado	1:24:42
1708. Arkaitz Galarza	1:24:53
1937. Joseba Galarza	1:26:06
1972. Hodei Ciganda	1:26:16
2212. Joxeja Maiza	1:27:20
2612. Jon A. Fernandez	1:28:46
2700. Imanol Guerrero	1:29:06
4349. Fernando Montero	1:34:11
4606. Alejandro Pain	1:34:56
4652. Pedro J. Rodriguez	1:35:02
4864. Eduard Casanovas	1:35:37
5079. Iñigo Rekalde	1:36:09
5772. Gaizka Mtz. de Albeniz	1:37:52

5778. Jon Lapuente	1:37:52
5993. Emilio Carabias	1:38:20
6300. Adrian Jaka	1:38:56
7181. Kaxi Estarriaga	1:40:37
7704. Iñaki Paniagua	1:41:41
7822. Juan Pedro Ariz	1:41:56
7876. Juanxo Azurmendi	1:42:04
8025. David Fuentes	1:42:26
9629. Diego Lopez	1:45:19
10771. Iban Martin	1:47:33
10969. Santi Agirre	1:47:53
11091. Gorka Perianez	1:48:06
11277. Ruben Cantero	1:48:24
12164. Javier Rekalde	1:49:59
12354. Iñaki Mauleon	1:50:19
12505. Iñigo Orella	1:50:36
14183. Jose Luis Rubio	1:53:38
16127. Karlos Alonso	1:57:17
16558. Raul Erice	1:58:03
18413. Iñigo Zapirain	2:02:00
18930. Jose A. Augusto	2:03:12

Emakumeak:

158. Cristina Silva	1:11:31
4299. Marta Irañeta	1:34:05
4370. Ainhoa Markinez	1:34:15
5879. Leire Mugika	1:38:05
8163. Erkuden S. Martin	1:42:44
8575. Maitane Txueka	1:43:32
13154. Elena Guzman	1:51:47
13404. Olatz Monreal	1:52:18
19920. Nerea Argüelles	2:06:09
22521. Saioa Jimenez	2:16:43
23445. Leticia Goñi	2:24:28

Irristaketa

Gizonak:

1. Alberto Aleman	35:12
9. David Gonzalo	35:34
23. Javier Gonzalo	41:01

Emakumeak:

17. Idoia Mtz. de Lafuente	40:06
----------------------------	-------

* Zerrendatan, baina denborarik gabe: Carlos Manero, Marijo Arza, Aritz Etxeberria, Jon Mendia, Aitor Mendia, Ibon Paularena, Alatz Agirre, Aizea Beraza eta Iñaki Razkin.

"Giroa paregabea zen; uste dut hori ez dela inon ikusten"

JABI GASANZ BARRAGAN KORRIKALARIA

Zer moduz joan zen proba?

Ongi, espero nuen denboratik nahiko gertu. Bero handia egiten zuen, eta gorputzari ezin zitzaion asko eskatu. 20 gradutik gora eta hezetan handia, horrek eragina du. Gorputzak energia gehiago behar du ongi funtzionatzeko.

Orain arte egin duzun denborarik onena izan da?

Nire lehendabiziko Behobia-Donostia izan da. Mendi lasterketatik nator, eta orain arte ez dut asfaltoan halako distantzia luzerik egin, baina aurten saiatzea erabaki nuen. Ataungo lasterketatik Behobiara proba luzeagoak egiten aritu naiz, gustura.

Behobiak izen handia du. Espero zenuena izan da?

Bai, giroa paregabea zen. Uneoro jendetza korrikalariak animatzen... Uste dut hori ez dela inon ikusten. Gorabeheraz



UTZITAKOA

beteriko lasterketa izan arren, ez zitzaidan gogorregia iruditu. Datorren urtean berriz hor egongo gara. Gainera, aurten egindako denborari esker, aurrerago aterako naiz, beraz, askoz hobe.

"Behobia espero nuena baino askoz hobea izan da"


MARTA IRAÑETA POYO KORRIKALARIA

Zure lehendabiziko Behobia izan da?

Bai, eta espero nuena baino hobea izan da. Bero gehiegi zegoen, hego haizea eta deshidratatzeko arriskua, baina buruarekin korrika egin nuen, poliki, pultsazioak kontrolatuz, eta ongi. Behobia disfrutatzeko lasterketa bat da, oso polita. Jende asko zegoen, ibilbide guztian barna korrikalari guztiak animatzen. Nik flipatu nuen. Musikariak, batukadak... sekulako giroa zegoen.

Espero zenuen denbora egin al zenuen?

Ordu eta erdi eta ordu eta 40 minutuko tartean egin nahi nuen proba, eta ordu eta 34 minututan egin nuen, oso pozik nago. Nire lehen Behobia denbora horretan egitea... handia izan da. Astebete lehenago Iruñeko Harresien Lasterketa egin nuen Behobia



UTZITAKOA

prestatzeko. Gustura nago bi lasterketetan egindakoarekin. **Behobiara engantxatu al zara?** Guztiz! Data hori azpimarratuta daukat nire datorren urteko egutegian!

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Sasoi betean, bere kirol ibilbideko unerik onenean dago Joseba Ezkurdia Galarraga (Arbizu, 1991-04-22). Lau eta Erdiko Txapelketa gogorrean azkeneraino iritsita, igandean kaiolako bere hirugarren finala du jokoa Bilboko Bizkaia pilotalekuan. Final klasikoa izango da, hiruretan arerio berbera baitu, Jokin Altuna Altuna (Amezketan, 1996-03-27). Partida estu eta gogorra aurreikusten da final handien giroa izango duen Bizkaian. Bere zazpigarren finala jokatu du Ezkurdiak: Lau eta Erdiko hiru, Binakako bi eta Buruz Buruko bakarra.

Udako izarretako bat izanda, sasoi betean iritsi zinen Lau eta Erdiko Txapelketara. Baina sorpresa eman da, final laurdenetako lehen partidaren Aitor Elordik 17 eta 22 irabazi zizun.

Egia esan ez nuen Lau eta Erdiko Txapelketa ongi hasi. Edozein txapelketaren hasiera zaila izaten da, lehenengo partidako nerbioekin eta tentsioarekin zaila egiten baita. Elordik partida oso ona egin zuen; ez zuen ezer galtzeko eta halako partidatan erraz jokatzeko da. Lehen zatian ongi jokatu nuen, baina bigarren zatian ez nuen asmatu. Ez nuen presio hori ongi kudeatzen jakin, eta Aitorrek merezita irabazi zidan. Partida bukatuta berehala esan nion anaiari hurrengo partida irabazi beharra nuela eta listo. Ez zegoen besterik.

Irabazi beharrezko presio hori kudeatzea zaila izango da.

Txapelketa hau gogorra izan da presioagatik eta tentsioagatik bereziki. Final laurdenetako bigarren partida, Elezkanoren kontrakoa, jada hil ala bizikoa zen, eta baita atzetik etorri ziren beste biak ere, Lasoren eta Peio Etxeberriaren kontrakoak. Tentsio handiko txapelketa izan da eta aste gogorak izan dira, partida zailak izan direlako.

Unai Lasoren kontrako partidaren mugarririk izan zen. Nolabaiteko final aurreratua zen, pilotazaleen artean sekulako ikusmina piztu zuena. Horrek gehiago motibatu al zizun?

Partida jokatzeko gogo handia nuen: Labrit beteta, Lasoren kontra, eta sari handia, finalerdietan egotea. Banekien Elezkanoren kontra irabazi ondoren Lasoren kontra hobeki jokatu nuela, arinago, eta hala izan zen. Txapelketako partidarik hobe-

"Zalantzarik gabe, nire unerik onenean nagoela sentitzen dut"

JOSEBA EZKURDIA GALARRAGA PILOTARIA

PILOTA Lau eta Erdiko bere hirugarren txapela litzatekeena jantzi nahi du arbizuarrak igandean Bizkaian. Altunari bi finaletan irabazi badio, zergatik ez hirutan?



Joseba Ezkurdiak makina bat ordu sartuak ditu elizako estalpean pilotan jokatzeko.

rena izan zen, gauzak oso ongi egin nituelako. Gustura, asebate geratu nintzen, maila oso ona eman nuelako eta sentsazio oso onekin jokatu nuelako. Partida garrantzitsua zen, baina gogotsu eta motibatuta nengo.

Partida hori irabazteak berrindartu zintuen?

Halako partidak irabaztea handia da; animo eta bulkada handia ematen dizute. Astea errazagoa izaten da irabazi ondotik. Galtzen duzunean aste txarra pasatzen duzu, zalantza gehiagorekin, baina partida hori irabazi izanak neure buruarengan gehiago sinesteko eta finalerdietara konfiantza gehiagorekin heltzeko hegalak eman zizkidan.

Finalerdian Peio Etxeberria izan zenuen arerio. Zu zinen favorito nagusia, baina errespetu handia zenion lagun minari, eta asmatu

"TXAPELKETA HAU GOGORRA IZAN DA: BIGARREN PARTIDA JADA HIL HALA BIZIKOA ZEN"

"LASOREN KONTRAKO GARAIPEK NEURE BURUAN GEHIAGO SINISTEKO HEGALAK EMAN ZIZKIDAN"

zenuen, hasieran ederki estutu zintuelako.

Peio asko jokatzeko du, eta lau eta erdian eroso sentitzen da. Abiadura handiarekin jokatzeko du, Altunari irabazi egin zion eta errespetu handia sortzen du. Nahiz eta favoritoa izan, partida zaila zen. Erritmo handiko partida izan zen, baina gauzak ongi egin nituen, sentsazio onekin jokatu nuen eta egindakoarekin gustura geratu nintzen.

Finalerdian kantxaren alde batetik bestera ibili behar izan zinen Peio Etxeberriaren erasoetatik defendatzeko. Eta toki guztietara erraz iristen zinen. Gizon altua zara, handia, (1,93 m, 93 kg) eta azkartasun hori ikusgarria izan zen.

Ongi sentitzen nintzen, konfiantzarekin, kantxan azkar ibili nintzen eta ongi defendatu nuen. Lau eta erdian ongi defendatzea oso garrantzitsua da. Garrantzia handia ematen diot defentsari. Altua naizenez beti izan dut zalantza hori, ea maila emango ote nuen, eta horregatik alderdi hori, desplazamenduena, gehiago entrenatu behar izan dut beti.

Zure kirol ibilbidearen gorenean zaudela esan daiteke, zure momentu onenetakoan. Egiten ari zaren txapelketa harrizko modukoa da. Zalantzarik gabe, nire unerik onenean nago. 31 urte ditut, baina uste dut bospasei urte maila gorenean jarrai dezakedala. Beraz, hobetzeko tarte ere badut. Gustura nago. Neure burua hobeki ezagutzen dut, esperientzia dut eta horrek arrastoa uzten du, garrantzitsua dena. Fisikoki ongi ikusten dut neure burua, buruz eta jokoz baita ere, eta nahiz eta hobetzeko gauzak izan hobetzeko nahia izan behar dugu beti, bestela jai dugu nire momenturik onenean sentitzen naiz, Buruz Buruko finalaren aurretik esan nuen bezala.

Mikel Idoate duela gutxi zurekin entrenatzen egon zen eta bera ere harrizko geratu zen duzun maila fisikoarekin. Entrenatzeko modua aldatu duzu?

Ez, azkeneko urteetan antzeko entrenatzen dugu. Zenbait ariketa aldatzen ditugu, baina denbora daramagu halako entrenamenduak egiten. Peio Etxeberriarekin lantzen dut fisikoa. Mikel gurekin entrenatzera etorri zen eta egun polita pasatu genuen. Entrenamendu zorrotzak dira, baina politak.

Maila pertsonalean ere ongi zaude? Guztiak batzen du?



Iganderako eskuak prest ditu aurrelari arbizuarrak.

Urte ezberdina eta arraroa izan da, baina ongi nago. Ingurune ona daukat horretarako: lasaitasuna, familia, lagunak, entrenatzen dugun tokia, Jokin Etxaniz, Jon Apezetxea... Oreka bat behar da eta aipatutako guztiak lagun-duta oso urte ona egiten ari naiz. Maila ona eskatzen duen eta buruz exigentea izaten ari den urte honetan, gustura nago.

Aspeko Jokin Etxaniz zuzendari teknikoa eta Jon Apezetxea intendentea aipatu dituzu. Hitz politikak dituzu beti euren dako.

Emaitzak hortxe daude, eta emaitza horien zati handi bat euren da. Egiten duten lana ikaragarria da. Jokin egunero doa entrenamenduetara eta beti laguntzeko prest dago. Telefonoaren beste aldean dago beti, bai pilotaz eta baita pilotaz kanpo ditugun kezka, zalantza, edozein arazo entzuteko eta laguntzeko prest. Sekulako pertsona puska da, pertsona ona. Berarengatik ez balitz, ni ez nintzateke nagoen tokian egongo.

Buruz burukoa baino lehen esan zenuen aurretik sorbaldan eta belaunean oinazeak zenituela, baina Itziar Gonzalez de Arriba nutrizio-

nistarekin lanean hasi eta elikadura aldatu zenuenetik ez duzula oinazetik. Elikadura horren zorrotz zaintzen jarraitzen al duzu?

Duela urte eta erdi edo bi urte, pandemia betean, oinazeekin ari nintzen jokatzeko. Bolea jotzen nuen aldiro sorbaldan sastada nabaritzen nuen, eta belauna arrastaka nuen. Bizkarrean ere mina. Partidak aguantatzen nituen, baina gero txikituta nengo. Arreba fisioterapeuta da eta nutrizionistarekin hasi behar nintzen errepikatzen zidan. Kantxan ongi ez nengoenez, nutrizionistara joan nintzen. Elikadura goitik behera aldatu zidan, eta nahiz eta gogorra izan, onura nabaritu nuen, oinazeak desagertu zirelako. Nik ere ezin nuen sinestu. Hasieran oso dieta zorrotza zen, garbiketa prozesu bat egin behar nuelako, baina ondoren elikadura moldatuz joan da. Udan lasaiago ibili nintzen, deskonektatu beharra dagoelako, baina abuztuaren erdialdetik aurrera berriro dietarekin hasi nintzen eta ongi.

Zein da zure elikaduraren oinarria? Barazkiak jaten ditut gehien, brokolia bereziki. Hasieran, gar-

biketa prozesuan, kurkuma, jengibre eta halako espezieak asko erabiltzen nituen. Hasieran ez nuen ez haragirik ezta arrainik jaten, baina orain bai. Haragi gorria astean zehar ez dut jaten, bakarrik asteburuan.

Jokin Altuna duzu arerio finalean. Aspaldiko ezaguna, final klasikoa izango da zuena. 2018an eta 2019an Lau eta Erdiko bi finalak irabazi zenizkion Altunari. Joan zen urtean finalerdietan irabazi zizun, eta bera izan zen txapelduna, Lasori irabazita. 2020an eta 2017an ere bera izan zen txapelduna. Elkarren artean

"JOKIN ETXANIZENGATIK EZ BALITZ, NI EZ NINTZATEKE NAGOEN TOKIAN EGONGO"

"NIRETAKO ALTUNA DA FAVORITO. BAINA BI ALDIZ IRABAZI BADIOT, ZERGATIK EZ HIRUGARRENA?"

jokatu duzuenan zu gailendu zara gehiagotan. Nor da faborito?

Jokini bi final irabazteko aukera izan dut baina nik uste dut faboritua bera dela. Kaiolan eman duen maila ikaragarria da: Lau eta Erdian zortzi txapelketa jokatu ditu, zazpi final jokatu ditu jarraian, eta lau txapela ditu. Jokin kaiolan oso eroso sentitzen da, gauzak oso ongi egiten ditu eta badakit partida zaila dudala aurretik, baina nire maila ematen badut irabazteko aukera izango dut. Bi aldiz irabazi diot, zergatik ez hirugarrena?

Nola egiten zaio mina Altunari?

Opari gutxi eginez, sakea ongi aprobetxatuz eta Jokin kantxa erdialdean ahalik eta gehien mantenduz. Nik erritmoa jartzea eta agintzea, hori da garrantzitsuena, eta tantoak ongi bukatzea. Jokin bezalako pilotari handi baten kontra garrantzitsua da ongi errestatzea. Pilota kentzea, berak tantoa oso erraz bukatzen duelako. Erraza da zer egin behar den esatea, baina gero egitea beste kontu bat da (kar, kar). Azken finean, errestoa eta sakea ongi egitea eta erritmoa ezartzea.

Lasai zaude?

Bai, finala gerturatu ahala urduritasun puntua iritsiko da, bestela malo. Baina ongi nago. Bilbon hiru entrenamendu egingo ditut. Bizkaia frontoia gustuko al dudan? Hasieran ez nuen horren gogoko, baina azkenaldian ongi jokatzeko dut. Nik uste Bizkaia pilotalekua Jokinendako frontoi hobea dela

niretako baino, erritmoa jartzen zailagoa baita. Frontoi lasaiagoa da. Nire jokorako Iruñeko hobea da.

Galdu edo irabazi, Arbizon ospatuko duzue?

Zalantzarik gabe. Beti esaten dut, baina egia da, final bat ez da egunero jokatzeko, oso garesti daude. Frontoian afora egiteko asmoa dugu, eta gustura bilduko gara. Festa eder bat izango da.

Irabaziz gero, non jarriko duzu txapela?

Ditudan txapelak -Lau eta Erdiko bi eta Binakako beste bi- nire etxera ekarri ditut, baina oraindik ez ditut kokatu. Toki nahikoa dago, txapelak toki gutxi behar baitu.

Finalaren aurretik zer egingo duzu deskonektatzeko?

Nerbioak ostegunetik aurrera hasiko dira. Ba filmen bat ikustera, edo Peio Etxeberriarekin norabait... ikusiko dugu.

Sare sozialei adi egoten zara? Edo egunotan ez sartzen saiatzen zara?

Sartzen naiz baina ez naiz esandakoei buelta asko emateko. Debutatutakoan aipamenei, Twitterren esandakoei eta bestelakoei buelta ematen nien, baina orain jada ez. Ez dut horretan denborarik galtzen.

Ea beste txapela bat Sakanara ekaritzen duzun.

Lau eta Erdiko hirugarren txapela lortzea handia litzateke, aitortu beharra dut. Dena emango dut, eta ikusiko dugu zer ateratzen den.



LAU ETA ERDIKO FINALAREN KONTAKIZUNA ZUZENEAN
www.guaixe.eus-en

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 18

ETXARRI ARANATZ Azoka.

Emakume artisauen postutxo ibiltariak: Migura, Amasuluk, La hormiga Maia, Josthari eta Magalean. 17:00etan, Leku Ona tabernan.

OLATZAGUTIA Ipuin kontalaria eta tailerra.

Laika beldar ausarta inposizio sozialekin apurtzen duen beldar baten istorioaren *Kamishibai* ipuin kontaketa eta tximeleta txotxongiloa sortzeko tailerra. SETEMek antolatuta. 17:00etatik 18:30era, liburutegian.

URDIAN Bertso-antzerkia.

Urpekariak haurrendako bertso-antzezlanaren emanaldia. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak Azaroaren 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunaren harira antolatutako ekimena. 18:30ean, Herrientxean.

ETXARRI ARANATZ Antzerkia.

Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga antzezleen *Lehendakariaga* antzezlanaren emanaldia. 22:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda.

Gaubela. 22:00etatik 09:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

OLATZAGUTIA Kontzertua.

Fresa Morango taldearen *Merengito elektronikoa* emanaldia. 23:30ean, Barandi tabernan.

LARUNBATA 19

ALTSASU Manifestazioa.

Salarios y pensiones con el IPC real y recuperar lo perdido. Aberastasuna banatu Sakanako Pentsiodunen Mugimenduen deitutua manifestazioa,

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduarekin bat eginez. 17:30ean, Foru plazan.

ALTSASU Gazte agenda.

Gozamenez kutxa. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

IRURTZUN Kontzertua.

Patrice Dumora Watson abeslariaren *Bobi* diskoaren aurkezpen kontzertua. 19:00etan, Pikuxarren.

LAKUNTZA Film dokumentala eta solasaldia.

Emma Larretaren *InVISIBLES* film dokumentalaren emanaldia eta solasaldia. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak Azaroaren 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunaren harira antolatutako ekimena. 19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Antzerkia.

El Joglars konpainiaren *Que salga Aristóteles* antzezlanaren emanaldia. 19:30ean, Iortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Elkartasun jaialdia.

Limpiezas Arana-Fernandez Aguilar enpresaren kontrako gatazkaren harira polizia espainiolak abxilotutako Bilboko kideekin elkartasun kontzertuak: Rudepride, The Lio, Pvbic enemy eta talde sorpresa. Pintxada: Itsusiak eta maltzurak, Little Artibilla, Azken erromantikoak eta Tori Dekker. 20:00etan, gazetxean.

BAKAIKU Kontzertua.

J. Haybers taldearen Rock & roll kontzertua. 23:00etan, Koxko tabernan.

IGANDEA 20

ETXARRI ARANATZ Mintzakide paseoa.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

El cuarto pasajero gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Ostirala 18 19:00
Igandea 20 19:30

As bestas gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Osteguna 24 19:00
Ostirala 25 19:30

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Queso de cabra y té con sal zineforum filmaren emanaldia

Igandea 20 19:00

La maternal zineforum filmaren emanaldia

Osteguna 24 19:00

Mintzekideek Iturmendira eta buelta paseoa egingen dute. Eraman beharrekoak: Euskaraldiko txapa, euskara ahoan eta belarrian, hamaiketako, ura eta arropa eta oinetako aproposak. 09:30ean, plazan.

IRURTZUN Azoka.

Bigarren eskuko azoka. 10:00etan, Pikuxarren.

ETXARRI ARANATZ Ibilbidea.

Haritz Zaharren ibilbidea Itzuli Mihizuli Haur eta guraso euskalduntzeko egitasmoarekin. 10:30ean, kanpinean.

OLATZAGUTIA Zirku ikuskizuna.

Orain Bi konpainiaren *Mute* ikuskizuna. Leioako Umore Azokan Euskal ikuskizuna hoberenaren irabazlea. 18:00etan, Herriko frontoian.

ALTSASU Elkarretaratzea.

Euskal preso eta iheslariak etxera. 20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 21



OLATZAGUTIA *Indarkeriarik kontsumitzen al dugu? Estetika, moda eta publizitatea SETEMen erakusketa.*

Azaroaren 18ra arte. Asteleheneetik ostiralera 15:00etatik 20:00etara. Liburutegian.

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde. 12:00etan, Zumalakarregi plazan.

IRURTZUN Emakumeen arteko sareak ehundu.

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunaren harira Sakanako Mankomunitateak antolatu duen Emakumeen arteko sareak ehundu patchwork-a sortzeko oihal zatien bilketa.

18:00etatik 19:00etara, Pikuxarren.

ASTEAZKENA 23

UHARTE ARAKIL Hitzaldia.

Agresiones sexuales mediadas por alcohol y drogas Aitziber Bañuelos Ganuzaren hitzaldia. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak Azaroaren 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunaren harira antolatutako ekimena. 18:30ean, udaletxean.

OSTEGUNA 24

ARBIZU Batzar irekia.

Aitxa Burua! Sakanako Euskaltzaleen Sarearen batzar irekia. 18:00etan, udaletxean.



IRURTZUN Elkarri laguntza elkartearen *Logela bat ez da bizileku bat argazki erakusketa.*

Abenduaren 1 arte. Pikuxarren.

ARBIZU Bakarrizketa.

Magma Mia Beatriz Eguizabalen bakarrizketa euskaraz. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak Azaroaren 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunaren harira antolatutako ekimena. 19:00etan, udaletxean.

ETXARRI ARANATZ ZinUEMA.

Zure platerean hasten da mundu film dokumentalaren emanaldia. 19:00etan, kultur etxean.

OSTIRALA 25

IZURDIAGA Martxa.

Azaroaren 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna.

Sakanako Mugimendu Feministaren *Indarkeria matxistaren aurrean, Autodefentsa feminista* Izurdiagatik Irurtzunera martxa. 18:00etan, plazatik.

LAKUNTZA Azaroak 25.

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna. Itaiaren mobilizazioa: *Indarkeria matxistari aurre egiteko sozialismoa eraiki.* 18:00etan, plazan.

Erviti aluminio PVC



Aukeratu zure gustoko leihoa

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen



ETXARRI ARANATZ Indarkeriarik kontsumitzen al dugu? Estetika, moda eta publizitatea SETEMEN erakusketa.

Azaroaren 21etik abenduaren 2ra arte. Astelehenetik ostiralera 15:00etatik 20:00etara. Liburutegian.



ALTSASU Juan Moreno eta Oier Pesquera artisten Asemejanza erakusketa.

Abenduaren 2ra arte. Astelehenetik ostiralera 20:00etara. Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.

IRURTZUN Film dokumentala.

El dolor se aprende y se puede desaprender film dokumentalaren emanaldia.

18:30ean, kultur etxean.

UHARTE ARAKIL Elkarretaratzea.

Azaroaren 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna. Sakanako Mugimendu Feministaren Indarkeria matxistaren aurrean, Autodefentsa feminista mobilizazioa.

18:30ean, plazan.

IRURTZUN Elkarretaratzea.

Azaroaren 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna. Sakanako Mugimendu Feministaren Indarkeria matxistaren aurrean, Autodefentsa feminista mobilizazioa.

19:00etan, plazan.

ARBIZU Elkarretaratzea.

Azaroaren 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna. Sakanako Mugimendu Feministaren Indarkeria matxistaren aurrean, Autodefentsa feminista mobilizazioa.

19:00etan, plazan.

BAKAIKU Elkarretaratzea.

Azaroaren 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna. Sakanako Mugimendu Feministaren Indarkeria matxistaren aurrean, Autodefentsa feminista mobilizazioa.

19:00etan, Erdiko iturrian.

ITURMENDI Elkarretaratzea.

Azaroaren 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna. Sakanako Mugimendu Feministaren Indarkeria matxistaren aurrean, Autodefentsa feminista mobilizazioa.

19:00etan, plazan.

URDIAIN Elkarretaratzea.

Azaroaren 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna. Sakanako Mugimendu Feministaren Indarkeria matxistaren aurrean, Autodefentsa feminista mobilizazioa.

19:00etan, plazan.

ALTSASU Azaroak 25. Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna.

Itaiaren mobilizazioa: Indarkeria matxistari aurre egiteko sozialismoa eraiki.

19:00etan, plazan.

ZORION AGURRAK



Garazi Goñi Andueza
Zorionak Garazi!
Jarraitu orain arte bezain jatorra izaten. Muxuak denon partez.



Inaxi Ulaier eta Miguel Maiz (1962-2022)
Azaroaren 20an, 60 urte ezkondurik Ongi pasa diamantezko ezkontzan!



ALTSASU Manifestazioa.

Azaroaren 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna. Sakanako Mugimendu Feministaren Indarkeria matxistaren aurrean, Autodefentsa feminista Sakanako eskualde manifestazioa.

20:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

DJ gaua Abuelo & Obi Juanekin.

23:00etan, Leku Ona tabernan.

OLATZAGUTIA Kontzertua.

DJ emanaldia.
23:30ean, Barandi tabernan.

Emaguzue zuen ekitaldien berri Asteazkeneko 13:00ak baino lehen.
661 523 245
kultura@guaxe.eus



OSTIRALA 18

LAKUNTZA Hasiera festa.

Txupinazoa, Elai Alai dantza taldea, Erraldoiak eta Abesbatza.
Txapa banaketa.
19:00etan, plazan.

BAKAIKU Hasiera ekitaldia.

Hasierako suziria, txapak jartzea eta musika.
20:00etan, elkartean (eguraldi onarekin kanpoan).

ALTSASU Hasiera ekitaldia.

Zortzikoa dantzatzuko dute. Ondoren, txapa jartze orokorra.
20:00etan, Foru plazan.

ARBIZU Pintxo potea.

Pintxo pote musikatua.
20:30ean, Argibide elkartean.

LARUNBATA 19

ARBIZU Hitzaldia.

Zinema eta euskara Imanol Rayo zinemagile arbizuarraren hitzaldia.
18:00etan, udaletxean.

IGANDEA 20

LAKUNTZA Munduko zerealak.

Txingurriye taldeak antolatutako Munduko zerealak ekimena.

Plazan.
12:00 Aniztasun jolasak.
13:30 Zerealen dasta.

ASTEAZKENA 23

LAKUNTZA Mintzakide.

Mintzakide taldearen topaketa.
18:30ean, Gure Nahia elkartean.

OSTEGUNA 24

LAKUNTZA Liburu aurkezpena.

Los vascones y sus vecinos (s. II a.C. VII. a.C) Jokin Lanz Betelu egilearekin.
18:30ean, udaletxean.

OSTIRALA 25

LAKUNTZA Pintxo potea eta kontzertuak.

Pintxo potea eta Lakutzako musikari gazteen kontzertu akustikoa. Biltokik antolatuta.
20:30ean, Biltokian.

LAKUNTZA Bertso afaria.

Bertso afari musikatua.
22:00etan, Lakuntzako Pertza elkartean.



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

JAIOTZAK

- **Natalia Diaz Palop**, azaroaren 9an Altsasun
- **Markel Etxarri Cia**, azaroaren 14an Urdiainen

HERIOTZAK

- **Maria Dolores Lizarraga Larraz**, azaroaren 11n Dorraen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.


JARRI ZURE IRAGARKI LABURRA!

948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak




EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 18



Larunbata, 19



Igandea, 20



Astelehena, 21



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK

Arakilgo Udalak bi lanpostu betetzeko deialdia egin du: Dinamizatzaile soziokulturalaren lanpostua oposizio lehiaketa bidez bete nahi da, eskabidea aurkezteko epea azaroaren 29an amaitzen da eta administrari laguntzaile lanpostua merezimendu lehiaketa bidez, parte hartzeko eskabideak eta dokumentazioa abenduaren 14a baino aurkeztu behar dira Arakilgo udalean.

Irurtzungo Udalak atezaina kontratatzeko oposizio lehiaketa egingo du: Gidabaimena, B2 Euskara ziurtagiria derri-gorrezkoak izango dira. Parte hartzeko eskabideak abenduaren 10a baino lehen aurkeztu behar dira udaltxean.

Uharteko Udalak zerbitzu anitzetako langile lanpostua bete nahi du: Merezimendu lehiaketaren bidez beteko du lanpostua, D mailakoa da eta B1 euskara ziurtagiria izatea derrigorrezkoa da. Deialdian interesa dutenek azaroaren 29ra arte dute eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea.

Arbizuko Udalak garbitzaile eta zumba irakaslea lanpostuak betetzeko oposaketak egingo ditu: Kirolegian ariko den garbitzaile bat kontratatu nahi du lanaldi erdian eta zumba irakaslea heren bateko lanaldia. D mailako postuak izango dira. Deialdian parte hartu nahi duenak azaroaren 29ra arte dute eskabideak eta dokumentazioa Udalean aurkezteko epea

OHARRAK

Guardetxeko argazkiak biltzeko deialdia: Lakuntzako Zabalarte Elkarte Aralarako Guardetxe agertzen diren argazkiak biltzen dabil, eta erakusketak bat egin nahi dute "Guardetxe proiektuaren egoera eta egin daitezkeen hurrengo ekintzei buruz hitz egitea" du helburuarekin. Halako irudiren bat duenak udaltxera bulego ordutegian joan daitezke argazkia eskaneatuko dute eta jabeari bueltatuko diote momentuan bertan.

Guardetxeko argazkiak biltzeko deialdia: Lakuntzako Zabalarte Elkarte

Aralarko Guardetxe agertzen diren argazkiak biltzen dabil, eta erakusketak bat egin nahi dute "Guardetxe proiektuaren egoera eta egin daitezkeen hurrengo ekintzei buruz hitz egitea" du helburuarekin. Halako irudiren bat duenak udaltxera bulego ordutegian joan daitezke argazkia eskaneatuko dute eta jabeari bueltatuko diote momentuan bertan.

Odol emateak Etxarri Aranatz: Azaroaren 23an, asteazkenean, 17:00etatik 20:30era, Osasun Etxean.

Emakumeen arteko sareak ehundu: A25 ekimenaren barruan Sakanako emakumeen topaketa egingo da azaroaren 27an; sortu zure oihal zatia (patchwork, kaporraz, gantxilloa...) eta ekarri topaketara, bertan oihal zati guztiak ehundu ditugu. Izena eman azaroaren 22a baino lehen berdintasuna@sakana-mank.eus helbidera idatziz.

Adur rol jolasa euskaraz eta dohakoa: Telegram bidez jolastan den rol joko bat jarri du martxan Eneko Azedok. "Adur - Azken erroka" Euskal Erdi Aro mitologikoan girotuta dago, Iruñetik hasi eta Euskal Herri guztiatik bidaiatzeko aukera ematen du, izaki mitologikoak aurkitu eta abenturak biziz. Telegram bidez esteka honetan sar zaitzake: <https://t.me/+ANOUJSCi0M210>.

Arropa bilketa: Baduzu erabiltzen ez duzun arroparik, eta ez dakizu zer egin? Arakilgo udaltxearen arkupean bilketa gune bat irekitzera goaz. Hila-beteko lehen azoka egunean, asteartean, 11:00etatik 13:00etara. Errotxapean dagoen Elkarri Laguntza Elkarteak duen egoitzara eramango dugu, bilketaren biharamunean. Itxipirur Taldea 620 254 230 eta Mank Anitzartean 648 070 710 antolatuta.

Lakuntzako jendeari Gaztetxokotik: Gaztetxokoak lakuntzarrei jakinarazi dienez, etxean erabiltzen ez dituzten eta gaztetxokoan erabiltzeko objektuak hara eramantzeko. Kiroletako materiala, mahai jolasak, eskulenetarako materiala,

etab. Gaztetxokoa Uriz kalean dago eta larunbatetan eta igandetan 16:30tik 20:00etara egoten da zabalik, orduan eraman daitezke gauzak.

Bakaikuko Jubilatutako elkarrekin egiteko aukera: Hiru Haizt Jubilatutako elkarrekin irailaren 11n egindako bilan bere egoitzan herrian erroldatuta dauden herriko jubilatutako sar daitezkeela erabaki zuten, sarrerarik ordaindu gabe. Horrekin batera bazkide berriek hileko kuotak besterik ez dituzte ordaindu behar. Bazkide egiten interesa dutenek urte hasiera baino lehen zuzendaritzako kideekin harremanetan jar daitezke.

Aralarko San Migel Santutegiko beharrak ikusita: Erabiltzen ez den eremu bat egokitu nahi da santutegia bisitatzen dutenentzat, eta bertan harrera lekua, kontrolgunea, banda eta komunak, dena interpretazio zentro berria eta kofradiaren egoitza ere. Zaharberitzeko proiektuan lagundu nahi duenak ES11 3008 0045 9840 7184 5517 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortzen egitean zati bat bueltatuko diote.

Konposta eskuragaita: Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak jakinarazi du edonor har dezakeela konpost Arbizuko UtzubarEKOguneko konpost plantatik. Astelegunetan 08:00etatik 15:00etara joan daitezke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasa behar da. Zakuak eramatea gomendatzen da. Konpost gurdikadak ere eraman daitezke.

Sakanako Mankomunitatearen Euskara zerbitzuko dirulaguntzak: Euskaltzaindikako, UEUn ikastaroak egin dituztenendako, euskara hitsez udal-ekuletara joan direnendako, euskara ikasten daudenendako eta Errotuluak (dendetan etab.) euskaraz jarri dutenendako dirulaguntza deialdi ezberdin hauetan eskaerak aurkezteko epea zabalik dago. Eskabide guztiak Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan edo egoitza elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira. Ez dira posta elektronikoko bidez jasotako eskabideak aintzat hartuko.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
📧 @Grupolrache
📱 Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es



'Behi-jasa' antzezlanaren irudia. UTZITAKOIA

Bikote baten etxean sartu

'Behi-jasa' antzezlanak genero indarkeriaren gaia lantzen du, bikote baten etxeko intimitatearen bidez. Laura Penagos Etxarrenen bizi den antzezlea 'Coral' da, laneko hirugarren pertsonaia bat. Azaroaren 26an Irurtzunen egonen dira

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN Genero indarkeria egunerokoa da *Behi-jasa* antzezlanean aurkezten duten etxean. Fernando eta Margarita bikotearen istorioa kontatzen du. "Gaia bikote harreman batean gertatzen den indarkeria da", azaldu du Laura Penagos Etxarrenen bizi den aktoreak. Penagos Coral da, "istorioan agertzen den hirugarren pertsonaia". Coral "egoera leheritzen bukatzeko agertuko da". Harreman bat, etxe batean. "Esango nuke Margarita etxealdi batean bizi dela, beti etxean dago, Fernando asko ateratzen da, baina Margarita etxean gelditzen da". Bortizkeria geruza asko daude, eta antzezlanean "poliki-poliki" azaleratzen joaten dira.

Penagos "pixka bat" urduri dago bihar, azaroak 19, larunbata, mus-tuko dutelako *Behi-jasa* Antsoainen. Azaroaren 23an, asteazkena,

Nafarroako Antzerki Eskolan aurkeztuko dute lana, eta azaroaren 26an, larunbatean, 19:00etan, Irurtzuno kultur etxean aurkeztuko dute, Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak Azaroaren 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunaren harira antolatu duen egitarauaren barruan. Antzezlanean, Laura Penagosekin batera Adriana Salvok Margaritaren papera egiten du eta Iñigo Aranbarrik, berriz, Fernandorena. Carlos Beren testua da, eta 2017an Espainiako Gobernuko Berdintasun Ministerioaren genero indarkeriaren aurkako zigilua lortu zuen. Iñigo Aranbarrik euskaratu du, Maria Suarez Ruiz de Zaratek zuzendu du lan kolektiboa eta Boga Boga konpainiak eszenaratu du.

Tratu txarren gaia poesiaren bidez eta antzerki absurdoaren

ukituekin lantzen ditu testuak, "bai euskaraz bai gaztelaniaz testu oso konplexua da, oso metaforikoa eta sinbolismo asko ditu". Oso interesgarria dela esan du Penagosek, "oso ongi dago, oso gustura gaude".

Prozesua

"Egun batean Adriana Salvok proposatu zidan Coralen pertsonaia egiteko. Antzezlanaren irakurri nuen eta baietz esan nuen. Proiektua oso interesgarria iruditu zitzaidan hasieratik". "Berehala" hasi ziren lana irakurtzen eta Penagos bere pertsonaia nolakoa

"TESTU KONPLEXUA DA, METAFORIKOA ETA SINBOLISMO ASKOREKIN; OSO INTERESGARRIA ERE"

zen pentsatzen hasi zen: "Nor da Coral istorioan? Zer egiten du? Zertarako? Zer harreman dago Margaritaren eta Coralen artean? Nik uste bien artean lortu genuen gako handiena ahizpatasuna aurkitzea izan dela; oso garrantzitsua izan da. Jarrera ez da emakume hau nire etsaia da, baizik eta egoera konplexu eta bortitz horretan, ahizpatasuna eta enpatia handia aurkitu dute". Bi pertsonaien arteko egoera "elkar uler-tzen" dutela azaldu du antzezleak. Helburua emakumeen arteko ahizpatasuna eta konplizitatea erakustea da, "baina aldi berean pertsonaia oso gizatiarrak dira, oso konplexuak".

Coral boxeo azafata da eta "zorritzarrez" Fernando maite du. Oso pertsonaia "zaila" dela esan du Penagosek. "Amodioa motor oso potentea da berarendako, baina aldi berean Fernando ezkondu dago, bere emaztea Margarita da, eta Coral haien etxera iritsiko da". Erriberriko Antzerki Jaialdian arte egonaldia egin zuten, eta bertan hasi zen Coral interpretatzeko prestatzen, "pertsonaiarekin planteamendua oso zabala izan zen. Pertsonaia interpretatzeko antzezleok gure bizitzako gauzak erabiltzen ditugu, eta nire erreferentziak eta harremanak erabili ditut Coral sortzeko". Baita erreferentzia emozionalak ere. "Pentsatu nuen zer harreman mota dudan gizonekin eta emakumeekin". Prozesua "oso aberatsa" izan dela esan du, ez

bakarrrik pertsonaia sortzeko, "nire bizitzan nola bizi izan ditudan harremanak ikusteko ere balio izan dit". Barrurako bidaia handia egin behar izan dute.

"Nik uste dut emakume izatea gaur egun oso zaila dela". Pertsonaia sortzeko prozesu horretan konturatu da emakumeen egoera "oso konplexua" dela eta berarendako amodioak "esanahi oso handia" duela. "Maitatzeko forma asko daude eta lantaldean hausnarketa sakona egin dugu: Zer da amodioa? Zertarako? Nondik maitatzen dugu?". Edozein hizkuntzatan hori adieraztea eta azaltzea oso zaila da.

Gai pribatuak eta intimoak ere azalarazten ditu *Behi-jasa* antzezlanak. "Gai soziala da, baina aldi berean oso intimoa. *Behi-jasa-n* hori islatzen da: bikote baten intimitatea. Normalean ikusten ez dena. Zer gertatzen da haien intimitatean, haien etxearen barruan, nola eta zergatik". Bederatzi hilabete. Prozesua oso luzea da.

Drama

"Zalantzarik gabe *Behi-jasa* antzezlanaren gaia oso potentea da. Genero indarkeriari buruzko lan bat da. Deserosoa eta hitz egiteko zaila. Zorritzarrez erreferentzia asko ditugu". Penagos aurreko lanean, *Atzerrian lurra garratz*, bere esperientzia pertsonaletik abiatu zen emakume etorkin baten paperean sartzeko, eta *Behi-jasa* ere drama bat da.

Bertsoaren bidez, haurrendako antzezlan

Gaur, azaroak 18, ostirala, 'Urpekakariak' bertso antzezlanaren emanaldia izanen da Urdiainen; Sakanako Mank-en Azaroaren 25erako antolatutako egitarauaren barruan

URDIAN

Kiroldegiko igerileku batean bi neba-arreba, ahizpa... Familiako kideak agertzen dira. Batak urari beldurra dio eta bestea ausartagoa da, baina istorioan zehar elkar laguntzen dute eta elkar zaintza handia dela azaldu du Maren Basterretxea *Urpekakariak* antzezlanaren aktoreetako batek. "Lehenengo gatazka da zer alda-geletara joan behar diren, eta, orduan, jolasean erabakitzen du bakoitzak nora joan". Igerileku horretan, gainera, gizaki eta izaki desberdinak agertzen dira, eta bi protagonistekin interak-tuatzen dute.

Urpekakariak bertso antzezlan bat da. Ane Labakak eta Miren Amurizak sortu dute gidoia eta



'Urpekakariak' ikuskizuna. UTZITAKOIA

Aixa Intxausti bertsolariak eta Eneko Arrate edo Basterretxeak egin ohi dute. Arrate antzezlea da eta bertso eskolan aritu da eta Basterretxea ere antzezlea da baina bertsolariarekin harreman estua duela esan du. Gaur, azaroak 18, ostirala, 18:30ean, Urdiaingo Herrietxean emanaldia egingen dute. Intxausti eta Basterretxea ariko dira.

"Bertsolaria eta antzezlea dena batera izatean ez da erraza". *Urpekakariak* antzezlan bat da, "baina erakusten du bertsoak komunikatu eta jolasteko alde ludiko horretatik zer gaitasun duen". Antzezlan bat da non pertsonaiak zenbait momentutan bertsoaren bidez adierazten dute esan nahi dutena.

Euskal sormena lantzen

Altsasuko institutuan Sormen digitala proiektuaren bidez gaur egungo baliabide teknologikoen bidez euskal kulturaren transmisioa eta komuniakzioa sustatzen ari dira. Ekimenaren barruan zenbait artista institutuan egonen dira; asteartean Ines Osinaga izan zen

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuan Sormen digitala deitutako proiektua martxan jarri dute Plastika, Musika, Euskara eta Biologia mintegiek. "Berez EIBZk bideratzen duen ekimen bat da. Nafarroako Gobernuo Hezkuntza departamentuak proiektuaren inguruan ardura batzuk hartu ditu orain", azaldu du Miren Ustarroz Goñi institutuko plastika eta marrazketa irakasleak. Proiektuak bi ardatz nagusi ditu: euskal kulturaren transmisioa, "gutxienez ikur garrantzitsu horiek ikasleei irakastea", eta beste alde batetik euskaraz egitea, "uste dugu horrela izan behar dela baina Internetera edo beste iturrietara joaten zarenean erreferenteen bila angloxajoiak izan ohi dira".

EIBZ horretaz jabetu zen eta "agente pasiboak" izatetik "agente aktiboak" izatera pasa behar zirela pentsatu zuten: "Ez bakarrik euskal erreferente horietara jo, baizik eta gu ere sortzeko ez eskubidea, baizik eta obligazio moral bat dugu. Izaki pasiboak garenean edozer irensten dugu eta oso erraza da edozein kulturak gu jatea. Euskal kultura gutxitutako kultura bat izanik, batzuetan ez gara

SORMEN DIGITALEAN PLASTIKA, MUSIKA, EUSKARA ETA BIOLOGIA MINTEGIEK PARTE HARTZEN DUTE

jabetzen daukan baloreaz eta egin ditzakeen ekarpenez. Guk geuk izan beharko genuka protagonismo eta eragiletzarako jarrera handiagoa".

Proiektuaren beste ardatz bat sormena garatzea eta lantzea da, eta helburu horiek zenbait proiekturen bidez bultzatzea. Bidean laguntzeko, gainera, artisten bisitak izaten dituzte institutuan: asteartean Ines Osinaga musikaria izan zen eta abenduaren Oskar Alegria zinemagilea eta Castillo Suarez eta Morkots egonen dira. Eta digitala non sartzen da? "Kontuan hartuta gaur egun kontsumitzen dugunaren ehuneko portzentai ikaragarri handi bat digitala dela, teknologia hauek maneiatzen ikasi behar dituzu ezagutza horiek bermatzeko eta gaur egungo sormen lanak sortu ahal izateko". Hori guztia da sormen digitala: Euskal kultura euskaraz komunikatzeko eta euskaraz informazioa eskuratzeko eskubidea eta zerbait berria sortzea eguneratuta dau den gailuen bidez adierazi ahal izatea.

Sakana

Euskal kultura ezagutzea oso garrantzitsua dela esan du Ustarrozek, "baina kultura horren barruan guk Sakanako esparru propioa sortzen dugu". Mapa propioa sortzen ari dira Sormen digitalen proiektuen bidez.

Proiektua "bilera desberdinetan" sortzen dela azaldu du Ustarrozek. Ikastetxe bakoitzari antolatzeke modua uzten diete,



BAZTERRETIK

JUAN CARLOS LOPEZ-MUGARTZA

Irulegiko eskua

Irulegiko eskua, euskal hitz garbi bat dakarrena, eta ulertzen ez diren hitzen segida iluna. Nire lagun batek esan didanez, "nik lehenengo lerroko sorioneku durduzagarri hori izan ezik, ez dut euskararen arrastorik ikusten. Iberikoaren itxura du" Ez dakit; ni ez nator bat nire lagunarekin, dena baitago, nire ustez, irakurtzen dugun moduaren mende. Aranzadik plazaratu duen transkripzioa oso ona da, lehenengoa da, baina ez da azkena izango.

Izan ere, har dezagun zorioneko sorioneku hitza eta onar dezagun zorioneko dela, eta hala dela onartzea erraza da euskal sena txikiena baldin badugu eta guztiz euskararen kontra ez bagaude, zeren eta ematen baitu poza eman ordez,

zenbaiti mina ematen diela euskara zaharraren testigantzak aurkitzeak. Eman dezagun, beraz, hala dela, orduan horrek esan nahiko luke s grafia dagoen guztietan z batez ordezkari dezakegula, eta, bai, Aranzadik zabaldu duen transkripzioan eseakari hitza dugu, gure erregelak ezarri, ezeakari bezala irakur liteke. Bestalde, Martinetek eta Mitxelenak proposatu zuten bezala, euskara zaharrak (protoeuskara deitua izan denak) bi kontsonante sail zituen, bat kontsonante lenez edo beste bat fortez osatua eta testuinguruaren arabera, segun non kokatuta zegoen kontsonantea hitzaren barruan lene edo forte izan zitekeen; eseakari hitzaren testuinguruaren zein zen ez

dakigu eta, agian, bi hitzen baturaren lekuan zegoen eta, orduan, bere kokapena fortea zen eta etzeakari berridatzi beharko genuke (edo ez zeakari). Bestalde, ka hori ga bezala irakur daiteke, eta orduan ezeakari izango genuke. Bestalde, euskara zaharrak hasperenketa bazuen, eta iberiar alfabetoak ez, eta kasualitatez hemen hasperenketa bat balego ezeakari, ezeakari edo beste izan genezake. Nik ez dut ezer ulertzen, baina irakurketa hau: "Zorioneku, Denekbehekirradarren otirretan hezeakari erraukon", ondoko segida hau bezain zilegi da eta ez du itxura iberiarrik: s o r i o n e k u {n} / t e n e k e b e e k i r a t e r e {n} / o T i r t a n . e s e a k a r i / e r a u k o n".



Ines Osinaga musikaria Altsasu institutuan Sormen digitalaren proiektuaren barruan.

eta handiagoak direnak hautazko irakasgai libre bezala eskaintzen dutela esan du. "Ikastetxe honetan, institutu txiki bat denez, ez dugu masa kritiko nahikoa hautazko ikasgai bezala ateratzeko, orduan bermatu nahi dugu gure ikasleak euskaraz sortu, kontsumitu eta adierazteko gaitasun hori izatea, eta pentsatu genuen tailer moduan jartzea eta irakasgai desberdinetan txertatzea". Proiektuak lan egitea da. "Zeharkako gai bezala daukagu eta gure programazioetan txertatuta daude proiektuak". Irakasleen artean koordinatzeko, antolatze eta egutegia sortzeko "eromena" izaten dela esan du irakasleak, "baina oso polita da. Horrelako gauzek beti ematen dute motibazioa".

DBHko hirugarren mailako ikasleek parte hartzen dute proiektuan. "Transmisioa eta lan guztia bermatzeko iruditu ziztaigun adin polita zela, horrela ziurtatzen dugu denak egitea irakasgai guztiak derrigorrezkoak direlako". Sakanako ikastetxe horretara joaten diren ikasle guztiak "modu horizontal" batean proiektuak jasotzen dutela bermatu nahi dute; gaitasun

digitala jasotzen dutela, sormena lantzen dutela, euskal komunikazioa ahalbidetzen dutela, eta gaitasun digitalarako tresnak erabiltzen dituztela. Gainera, aurreko ikasturtean institutuak Kulturartekotasun proiektu bat hasi zuen NUPekin batera, eta konturatu ziren ESOKo -A eredu- ikasleak "egoera latz" batean zituztela. "Iruditzen ziztaigun euskara integrazioarako tresna izan behar zela, eta euskal kulturak balio beharko lukeela ikasle hauei merezitako harrera egiteko".

Proiektuak

Sormen digitala, beraz, plastika, musika, euskara eta biologian egiten dituzten proiektuen bidez garatzen dute. Batzuetan irakasgai desberdinak elkartzen dira amankomuneko lanak egiteko. Esaterako, musika irakasgai orain Sakanako abesti tradizio-

EUSKAL KULTURAREN TRANSMISIOA ETA KOMUNIKAZIOA DIRA PROIEKTUAREN ARDATZ NAGUSIAK

nalak hartuko dituzte eta bertsoak eginez gaurkoratuko dituztela azaldu du Ustarrozek. "Mila baliabide teknologiko eta digital dauzkagu abesti horiei buelta emateko eta gaurkora eramateko". Urdiaingo *Ur goiena*, inauterietako abestiak... bertso berritua izanen dute ikasturtean zehar. "Oinarria izango da euskal kultura hori, sormen prozesuak bultzatuko ditugu, taldeka lan egingo dugu eta zerbait berria sortuko dugu". Abesti bat.

Plastikan planoaren gaineko transformazioetan lan egin behar zuten, oso teorikoa den biraketa, simetria eta horrelako kontzeptu abstratuak, "baina Altsasun gaude eta Sakanako mapa sortu behar dugu sormen digitalean; kontuan hartuta hemen dugun aberastasun geologikoa, biologikoa eta zuhaitzakeria, ikasleak herriko plazatarra eta basoetara joan ziren eta hostoak hartu zituzte". Biraketak, traslazioak eta horrelakoak bertako baliabideak erabilia ikasi zituzten. Altsasuko basoen ezagutza, botanika, geometria eta abar ikasi zuten. Euskara mintegiarekin amankomuneko proiektu bat landuko du plastika mintegiak: narrazio

bat osatu beharko dute eta bi baldintza izango ditu, alde batek Sakanan kokatuko da, eta horretarako dokumentazio lana egin beharko dute, eta Jose Ramon Anda Bakaikuko eskultorea oinarri izanen da. "Plastikan aulki bat sortzeko aitzakia izango da, berak lan zoragarriak egiten dituelako, eta aitzaki horrekin adierazpen moduak landuko dituzte ere bere ibilbidea, lanak eta abar aztertuko dituztela". Moldeen hastura bat suposatzen duela esan du irakasleak.

Gonbidatuak

Sormen digitala proiektuaren barruan zenbait sortzailek hitzaldiak ematen dituzte institutuan. "Luxu ikaragarria da ez dena ordaintzen". Artistek ikasleekin kontaktu zuzena dute eta sortzen ari den pertsona horren kezka, beldurrak, teknikak, baliabideak eta abar adierazten

SORTZEA ETA KALERATZEA BI GAUZA DESBERDIN ZIRELA AZALDU ZUEN INES OSINAGAK

dituzte. "Ikastetxeak horrelako gauzak behar ditu". Nafarroako Gobernuak bultzatutako ekimen bat da, eta sortzaileen zerrenda bateik Ines Osinaga musikaria eta Oskar Alegria zinema zuzendaria izanen dira aurtengo artista gonbidatuak insitutuan. Osinaga asteazkenean egon zen eta Alegria abenduaren 13an egonen da. "Beraien lana oparitzen digute".

Nafarroako Gobernuak sustatzen duen zerrenda hori "oso ongi" dagoela esan du Ustarrozek, "baina nola geratzen zaigu gure Sakanako mapa hori? Euskara eta plastika mintegietatik idatziko eta marrazketa adierazpena lantzen ari gara, eta biak nahasten ilustratutako ipuin bat aurkeztu berri dute, Altsasun bertan, Castillo Suarezek eta Josemari Morcillo Morkotsek". Gonbidatu zituzten eta "berehala" baietz esan zuten. "Ikasleei zor diegula iruditzen zaigu".

Ines Osinaga

Azaroaren 15ean, asteartean, zian zen Ines Osinaga musikaria, hizlaria eta sormen proiektu kolektibo bateko zuzendaria, bere burua aurkeztu zuen bezala. "Zentroan beti dago musika, gauzak kontatzeko desira, euskara eta feminismoa". Hortik sortzen du Osinagak. Ikasleei aholku bat helarazi zien: "Gauza bat da sortzea eta beste gauza bat da plazaratzea. Sortzen den guztia ez da zertan plazaratu behar". Berak sortzen duen guztia ez duela plazaratzen esan zien, "batzuetan sortzen dudanean pentsatzen badut konpartitu behar dudala urduri jartzen naiz. Nik sortu nahi dudana sortzea gozada bat da, baina dena ez dut partekatzen". Sortutakoekin txorizoak deitzen den karpeta bat duela aitortu zien, "eta agian hemendik bi urtetara pieza bat eskatzen didate eta horretara joaten naiz ea zerbait har daitekeen begiratzera". Hau esan zien agian irakasleek "tentazioa" dutelako ikasturtean zehar produktu bat atera behar dutela esaten dietelako, "baina ez izan hori buruan".

Bestetik, Anariren *Efemerideak* eta J. Martina taldeak egindako abestiaren bertsoaren bitartez, musika sortzeko zenbait baliabide erakutsi zituen Osinagak: kanta bat hartu, abiadura handitu, sinplerrak sortu eta gehitu... Hori guztia ordenagailu baten bidez.

"Ergoienan harrera oso ona egin zidaten"

Lizarragako botikak 25 urte bete dituen honetan ilusioz eta gogotsu jarraitzen du Pili Calvo Valero botikariak. Botikaria izateaz gain, psikologo eta entzule lanak egiten ditu maiz, ergoendarren konfiantza irabazi duelako

Maidar Betelu Ganboa LIZARRAGA

1 Iruindarra izaki, nola erabaki zenuen botika Lizarragan zabaltzea?

Nafarroako hainbat botikatan ordezkapenak egiten nituen, baina neure botika izan nahi nuen. Orduan botikak zabaltzeko legedia zorrotzagoa zen, populazioaren araberakoa baitzen. Nafarroan soilik hiruzpalau tokitan jarri zitekeen botika bat, horietako bat Ergoiena zen, eta oso ongi komunikatuta dagoenez, animatu nintzen.

2 Tokia bilatzea erraza izan zen?

Ez. Neure asmoa bajera batean zabaltzea zen, baina Lizarragan ez zegoen bajejarik. Kontzejuak hiruzpalau lursail publiko zituen, neure eskaria onartu, eta botikaz gain etxebizitza ere egin nuen.

3 Herri txikiak izaki, negozioak funtzionatuko ote zuen kezka zenuen?

Horrenbesteko ilusioarekin eta hain gogotsu etorri nintzen, ez nuen aukera hori planteatu ere egin. Hiru herrietan neure burua aurkeztu nuen eta harrera oso ona izan zen. Benetan.



Pili Calvo Lizarragako bere botikan.

Ergoendarrek zerbitzua bertan izatea asko eskertzen dute.

4 Datuak ikusita, bezero gehienak edadetuak izango dira.

Bai. Iritsi nintzenezan 65-70 urte zituzten bezero askok gaur egun

90-95 urte dituzte. Adin horretako asko daude. Ergoienakoa oso zaharkitutako biztanleria da. Badago herrian geratu denik, herrian etxea egin duten gazteak, nolabaiteko errelebo bat. Baina gehienak nagusiak dira. Hemen

urte txar bat badago, herri erdia joaten zaizu.

5 Ergoienan etxebizitza edo lursailak salduko balituzte, jendea gehiago geratuko litzateke bertan?

Baietz uste dut, baina herri txikietan familiaren ondarea saltzea kostatzen da.

6 Botika gainean bizi zarenez, bezeroak edozein ordutan etorzen al zaizkizu?

Batzuetan ordutik kanpo etortzen dira, baina beti arrazoizko kasuren bat dagoenean.

7 Botikaria, psikologoa, konfiantzako entzulea... denetarik.

Hori nire lanbidearen alde ona da, bezeroek deitu eta edozein arazo kontatzeko duten konfiantza hori. Ni ere halakoa naiz, eta badakite edozein gauza kontatu ahal didatela. Bezeroen konfiantza irabazi dudala sentitzen dut. Gehienak maitagarriak dira, oso ongi tratatzen naute. Badago bat perretxikoak ekartzen dizkidana, edo arrautzak... Nolabait, eurekin ongi portatzen zaren sentsazioa duzu. Esker ona.

8 Pandemia nola bizi izan zenuen?

Jende nagusia izutu zen eta askok zalantzak argitzeko deitzen zidaten. Batzuei botikak etxera eramaten nizkien, baina ez zen izu egoera bat izan, inola ere. Ergoienan ez zen coronavirusak jota inor hil. Ezta bat ere. Osasun mentalaz horrenbeste hitz egiten den honetan, esango nuke jendea, orohar, okerrago dagoela. Bezero batzuk botika-ostean sartu eta hustu egiten zaizkit. Beste batzuk, aldiz, ez dute zer duten adierazi nahi izaten.

9 Zein da botikan gehien saltzen dena? Automedikazioarako jarrera handia dago?

Gehien saltzen direnak paracetamolak eta analgesiko antiinflamatorioak dira. Analgesian modak izaten dira. Gaur egun naxoprenoekin eta ibuprofeno eta paracetamolarekin gabiltza. Automedikazioarena, bai, gertatzen da. Esango nuke gazteak automedikazioa direla gehiago. Nagusiek oinaze handiak aguantatzen dituzte, askotan gehiegi.

10 25 urte. Zein da balorazioa?

Ona, momentuz kontentua nago, ilusioz eta gogotsu. Agian faltan botatzen dudana da jende gazteago etortzea, nire jakintza proban jartzeko. Azalean erro-sazeoa dut, zer gomendatuko zenidake? Eta halakoa. Bestalde, gazteak lasaitasun osoz etortzen dira. Konfiantza badago. Guardian dagoenean asko datoz hurrengo eguneko pilula eskatzera. Beti esaten diet kontu handiz erabili beharrekoa dela, larrialdiko botika baita. Ezin da inoiz antisorgailu gisa erabili behar. Sekulako bonba hormonala da gorputzarendako.

11 Asteburuan San Klemente festak ospatuko dituzue.

Bai, eta oso gogotsu nago. Festa hauek bereziak dira, sekulako arriskua dute (kar, kar...). Guztiak gonbidatuta zaudete. Lizarragan gustura bizi gara, nahiz eta eguzkiak ez duen asko jotzen. Adarra jotzen digute horrekin, baina hala da, aitortu beharra dugu. Bereziki neguan nabaritzen da: oso luze egiten da. Argi faltak geure izaeran ere eragina du, zalantzarik gabe, baina Lizarragan oso-oso gustura gaude.

**ZURE MARKA
DESBLOKEATZEKO
GAKOA
DUGU**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



gk
DISEÑUA ETA
KOMUNIKAZIOA

619 821 436
info@komunikazioa.eus
www.komunikazioa.eus
Fery plaza, 23-1. Alfoz